

GUaiXE.net



Alex Mariñelarena
ebxean segitzen du
osatzen



Kirolak >> 11

Etxarri Aranazko abesbatzak
Torrelavegako erlijio-musika
zikloan ariko da. Europa
iparraldeko doinuak emanen ditu



Kultura >> 15



Aurretik botoa eman zuten igandean lixarrengotar askok. Etzi egingen dute beste batzuk. UTZITAKOIA

Herri galdeketa Etxarrin

>>> 8-9

Olatzagutiko
Udalak
17 pertsona
kontratako ditu

Aisia, lana eta garbi-
ketan ariko dira >>> 5

Arakilgo
Udalak sei
kontratazio
eginen ditu

Bost peoi eta gizarte
dinamizatzailea >>> 7

Bertsolaritza
irakaskuntzan
programarako
laguntzarik ez

Kinka larrian progra-
ma eta elkarteak >>> 14

Autobusak
Arakilen
gelditzeko
eskaera

Udalak Ekain, Zuhaz-
tun eta Satrustegin
gelditzea nahi du >>> 6

Lau urtetan
langabezia
%169 igo da
Sakanan

>>> 7



Auzibidera jo
dute Inasako
langile ohiek

Baikap-eko buruen
kontra kereila jarri
dute >>> 8

Elkarrekin bidea egiten

*Denon ahotsa
behar dugu,
egin zaitez*
**Komunitateko
kide**

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com




Laia eta Alejandra ZORIONAK bikote, Laiak 5 eta Alejandrak 3 urte betetzerakoan!! Ongi pasa lehengusu! Zuen etxeko partetik.




Laia ZORIONAK LAIA!! Apirilaren 8an 5 urte bete zenituen. Muxu handi bat zure familia eta lagunentzako partetik.



Noemi ZORIONAK Noemitsu! Jarraitu beti bezain jator eta alai, txikita! Afari eta parranda askotarako! "La kinta del gintonic".



Jesus Ramon ZORIONAK zure guraso eta anaien partetik.



Igor ZORIONAK zure familiaren partez!! Mila muxu, potxolo!!



Nahia Lumbreras Ruz ZORIONAK!! 8 urte jada!! Muxu handi bat familia guztiaren partez.




Miren Mintegi Claver ZORIONAK maitea!! Oso ongi pasa zure eguna!! 3x3 = ... 9 urte, 3x3 = ... 9 muxu zuretzat. Familia guztiaren partez.



Siets Goikoetxea Garde ZORIONAK eta muxu handi bat amona Isabel, osaba Iñigo eta izeba Martaren partez.



Siets ZORIONAK SIETS! Igandean 7 urte beteko dituzu. Ohartu gabe handitzen ari zara, txikita! Muxurik handiena zuretzat. Aita, ama eta Ihart.



Josu Brum Brum... Zorionak Guaixeko banatzaile beteteranoari!

apiribilak

11-16

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Bertsioak. Apirilaren 15ean, asteartean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasuko musika eta dantza eskola.**

Gozategi. Apirilaren 13an, igandean, 19:30ean Etxarri Aranazko plazan.

Dantza

A pie. Apirilaren 12an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Compañía de danza Daniel Doña.**

Salsakana. Apirilaren 12an, larunbatean, 12:00etatik aurrera Altsasuko Labaderon, Kaixon eta Xumen.

Antzerkia

Figurantes. Apirilaren 11n, ostiralean, 21:30ean Irurtzongo kultur etxean. **Ados teatroa.**

En lo más crudo del crudo invierno. Apirilaren 11n, ostiralean, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean. **Incierto Troupe-Kromlech.**

Txanogorritxo rock. Apirilaren 13an, igandean, 18:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Tdiferencia.**

Zinema

Encierro. Apirilaren 11n, ostiralean, 21:45ean eta apirilaren 13an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mis días felices. Apirilaren 11n, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 13an, domekan, 20:10ean

Altsasuko lortia kultur gunean.

La Lego película. Apirilaren 13an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Olazti-Aranatzazu. Apirilaren 13an, igandean, 7:00etan Olatzagutiatik. Sakanako Mendizaleak.

Senosiain-Lizarraga. Apirilaren 13an, igandean. Irurtzongo Iratxo mendi taldea.

Adi-Sorogain. Apirilaren 13an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Txirindula irteerak

Frias (Burgos). Apirilaren 13an, domekan, 7:30ean Altsasuko Burunda mendi bizikleta taldearen bajeeratik. **37 km.**

Erakusketak

Literatura eta artea uztartuz. Apirilaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Iñigo Aritza ikastola.**

Proiektzioa

De o a 8.000. Apirilaren 12an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Altsasuko Mendigoizaleak. **Jose Ramon Agirren, Marron.**

Hitzaldiak

Ingurumena enpresetan (automobilgintzan eta Inasa). Apirilaren 11n, ostiralean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Hizlaria: VVeko teknikariak eta udala.**

Sahara askatuta. Apirilaren 11n, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlariak: Askapenako pasa den urteko brigadista sakandarrak.**

II. Errepublikaz. Apirilaren 14an, astelehenean, Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlariak: Jose Migel Nuin eta Javier Dronda.**

Tailerrak

Masajea. Apirilaren 12an, larunbatean, arratsaldean **Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.**

Bestelakoak

Grupos autónomos. Apirilaren 11n, ostiralean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean. **Jony Destroyeren liburu aurkezpena.**

Udaberriko azoka. Apirilaren 12an, larunbatean, 16:30etik aurrera eta 13an, domekan, 10:00etatik aurrera, Olatzagutiko Erburua kiroldegian.

Errepublikarrei omenaldia. Apirilaren 14an, astelehenean, 12:00etan Altsasuko udaletxe aurreko oroigarrian.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 11n, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan elkarretaratzeak. Apirilaren 13an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Apirilaren 14an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

bardoak

2014

nafarroako taldekako bertso ekimena



FINALA

APIRILAREN 12AN,
LESAKAKO FRONTOIAN, 17:00ETAN

LEPATANATUEK 2, TXIPIROIEN ITZULERA

(Baztan)
Oier Amiano
Jon Barberena
Kotte Plaza
Xabier Maia

HARRAPAZANK

(Leitza)
Migel Mari Elosegi "Luze"
Iñigo Ibarra
Joanes Illarregi
Jose Luis Barberia "Zili"

BERTZE MALDIKOAK

(Iruñea)
Ainhoa Aranburu
Aimar Karrika
Oskar Sanz de Acedo

antolatzailea



laguntzailea

guaixe.net

informazio osoa eta sarrerak

WWW.BERTSOZALE.COM

SAKANA

Literatura hauteskundearen emaitzak

Apirilaren 11an Juul literatura hauteskundearen 16. edizioan parte hartu zuten Sakanako ikasleek 773 ikasleek

Liburu eguna gerturatzearekin batera Nafarroako ikasleek Juul, literatura hauteskundeak iritsi ziren. Haien helburua bikotiz da. Alde batetik, ikasleentzako irakurtzeko zaletasuna bulkatzea; eta, bestetik, hauteskunde sistema bat ezagutzea, ikasleek beraiek egiten baitute dena, bozkatu eta mahaian egon.

Euren bozkekin gogoko euskarazko liburuak eta ilustratzaileak aukeratu dituzte Euskal Herriko ikasleek. Txikienek Castillo Suarezen *Muxurik nahi?* liburuak euren gustuko 3.a dela adierazi dute botoekin. Egi-

le horiek aitortza moduan Dora Salazar eskulturgile altsasuarra sortutako eskultura bat jasoko dute: *La imposibilidad de ser (venus)*.



Iñigo Aritzako ikasleak Juul hauteskundearen parte hartzen. UTZITAKOIA

Sakanako liburu hautatuak

Adina	Liburua	Idazlea	Ilustratzailea	Argitaletxea
3-6 urte	Muxurik nahi?	Castillo Suarez	Eider Eibar	2011 Mezulari
	Erikaren ttiliak	Castillo Suarez	Estibalitz Jalon	2013 Aizkorri
	Katutxo eta elurra	Joel Franz Rosell	Constanze V. Kitzing	2012 Pamiela
6-8 urte	Erikaren ttiliak	Castillo Suarez	Estibalitz Jalon	2013 Aizkorri
	Muxurik nahi?	Castillo Suarez	Eider Eibar	2011 Mezulari
	Nur eta alfonbra hegalaria	Toti Mtz de Lezea	Juan Luis Landa	2013 Erein
8-10 urte	Krispeta hegalaria	Castillo Suarez	Enrique Morente	2012 Elkar
	Greg, Gizajo baten egunkaria	Jeff Kinney	Jeff Kinney	2011 Alberdania
	Nikolas txiki	Gosciny / Sempe	Gosciny / Sempe	2012 Elkar
10-12 urte	Nur eta kobazulo liluragarria	Toti Mtz de Lezea	Juan Luis Landa	2013 Erein
	Nur eta dortoken uhartea	Toti Mtz de Lezea	Juan Luis Landa	2013 Erein
	Nur eta etxe sorgindua	Toti Mtz de Lezea	Juan Luis Landa	2013 Erein
12-16	Ezekiel nora ezean	Jasone Osoro		2013 Elkar
	Nire alabak ez dauka erremediorik Ostegunak	Antxiñe Mendizabal	JMMorcillo "Morkots"	2013 Elkar

Ilustratzaileak

- Juan Luis Landa
- Jose Mari Morcillo "Morkots"
- Estibalitz Jalon
- Mikel Valverde

SAKANA

Gelatik gelarako ipuin kontalariak

Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxeko DBH 1eko ikasleak ipuin kontalari lanetan ari dira ikastetxe bereko LH 1. eta 2. mailako gelatan. Ikasleek binaka, euskaraz, txiki-iki ipuinak kontatzen dizkiete. Sorta ederra dute kontakizunen artean. Saioen ondoren galderak ere erantzun behar izaten dituzte.



lacturale

www.lacturale.com



Nafarroako Ekoizpen Integratuan
Ziurtatutako Esnea

Kalitate Gorena

Lacturale Nafarroako 18 granjek osatzen dugu. Proiektu honen alde egin genuen hasieratik, gehien gustatzen zaiguna egiten jarraitzeko, hau da, abeltzainak izaten jarraitzeko, baina gure proiektua filosofiaz beterik dago. Gure helburu nagusia kontsumitzaileari ziurtatutako **kalitatea** duen produktu bat eskaintzea da. Ingurugiroarekiko modu jasangarrian, animalia ongi-zatea zainduz eta gizartearekin konpromisoa izanez, kultura eta kirol arloaren bidez. Horregatik, **Ekoizpen Integratuko esnearen alde** egiten dugu eta gure produktu guztietan ikusgai dago ekoizpen berritzaile mota honen ziurtagiria.



Lacturale taldearen filosofiaren barne gure **gizartearekiko konpromisoa** ere isladatzen da, kirolean, kulturen eta elkartzunezko ekintzetan ematen dugun laguntzaren bidez; hauekin herriak, baloreak eta

ohiturak bizi mantentzen laguntzen dugu. Bestalde, gure proiektuak zuzeneko eta zeharkako **lanpostuak** sortzen ditu hemen eta baita aberastasuna Nafarroan eta inguruan ere.

Gure kanpaina berrian ikus daitekeen bezala hauek dira gizarteari luzatzen dizkion **LACTUGOGOETAK**:

"Bertako produktuak erosita, hemengoentzat lana sortzen dugula jakin badakit, horregatik etxeko produktuak aukeratzeko ditut".

"Gure hezurrek kaltzioa behar dutela jakin badakit, horregatik kalitatezko kaltzioa ziurtatzen didan esnea erosten dut".

"Ingurugiroa zaindu eta gure kirol eta kultura babesten duten enpresen alde eginez, guztiok irabazten dugula jakin badakit, horregatik balore hauek duten enpresen alde egiten dut".

*Etorri
Lacturale
ezagutzera
eta ondo pasa!
Hitzordua hartu:
948 600 449*

Azken finean Lacturale esnekiak elikagai jasangarriak dira, kalitatezko produktuak, garaikoak eta bertakoak, ingurugiroarekiko, gizartearekiko eta bertako ekonomiarekiko konpromezua dutenak.



Raf Atxuri

Inperioak kontraerasoan. Hotzetik epelera

astekoa

Unibertsitate aurreko ikasturtean Krimeako Gerraren inguruko aketa Jaltako hitzarmena ikasten genituen buruz hautaprobak egin ondoren ahazturaren txokoren batean gordetzeko. Eta hara non berriki Itsaso Beltza, Sebastopol eta halakoak bisitatu behar izan ditugun mapetan, seguruenez hemendik gutxira beste txokoren batean txukun uzteko.

Bigarren Mundu Gerrari Gerra Hotza delakoa jarraiki zitzaion: arma hornidura gaitzak nonahi, munduaren banaketa geoestrategikoa eta espioiak bazterretan. Berlinen horma pitzatu zen, Gerra Hotzaren egin zuen eta Fukujamaren arabera historia finitu.

New Yorketik mundua ingelesez gobernatu ahal izango zen

lehiakide argirik gabe barra eta izarrez beteriko planeta batean, baina lur zabaletako errusiar hartza ez zegoen hain abaildua amore emateko historiaren aurrean. Komunismoa Plaza Gorrian diseinatu eta pope nahiz aberats berriekin lotuz ziren Eurasia eraikitza.

Anartean Bruselako Europak, hots, Alemaniak, aukera berriak,

hots, merkatu berriak ikusi zituen nahaspila horretan. Horiek horrela Lituania, Moldavia, Kroazia, Bosnia, Montenegro, Kosovo besteak beste urgaineratu ziren... nazio zahar eta muga berrien dantza urduri eta tarteka odoltsua.

Orain "mundulibre" deritzanak tipula negarra egiten du Ukrainarengatik, Kieven gertaturiko

estatu kolpetasuna ikertu gabe eta krimearren iritzia aintzat hartu gabe (bidenabar, noiz eskatuko die iritzia Ama Errusiak txetxeniarrei?).

Ukrainarrak, aldiz, politika-ri ustel eta ekintzaile neonazien artean ataka ezin estuagoan dira, gasa eta arnasa mendebaldetik nola iritsiko zaizkien ezin asmatuz.

hara zer dien

Zigarro elektronikoa

Gaiarekin hasi aurretik, bada- go jakin beharreko gauza bat: zigarro elektronikoa ez da tabakoaren deribatua, ez produktu medizinala ezta erretzen uzteko terapia.

Beste datu garrantzitsu bat: 2009 urte bukaeran Espainian zigarro hauen salmentarako bi denda besterik ez zeuden. Gaur egun 3.100 denda baino gehiago dira produktu honetan espezia-

lizatuak eta beste 4.000 estankotan ere saltzen dituzte zigarro hauek.

Zigarro elektronikoa, bateria bat eta atomizadore bat duen zilindro txiki bat besterik ez da; eta sortzen duena lurruna da eta ez kea.

Medikuek esaten dutenaren arabera zigarro elektronikoa, betiko zigarroak baino sustantzia kaltegarri gutxiago ditu,

baina diotenez baditu osasunerako kaltegarriak diren osagaiak, eta horietariko batzuk kantzerigenoak dira.

OMEk zigarro hauek ez erabiltzea gomendatzen du. Produktu segurua eta kalitatezkoa dela dioten datuak ez dauden bitartean ez kontsumitzea de OME-ren aholkua.

Zigarro hauek neumonia sor dezaketela ere adierazi dute adituek. Oraingo kasu bakarra ezagutu da Espainian, baina horien kontsumoa mantenduz gero, epe laburrean kasu gehiago agertuko direla diote.

Badaude zigarro hauen aldekoak eta kontrakoak, gai guztietan bezala, baina kasu honetan beste negozio mota batez ari garenez, iritziek etekin ekonomikoekin dute lotura handia. Adibidez, tabakoaren industriak produktua ez dela fidagarria eta osasunerako txarra dela ikustarazteko interes handia du, beraien negozioa arriskuan ikusten dutelako.

Badaude zigarro mota honen erabilera arautzeko akordioak bete dituzten erkidego batzuk: Katalunia, Euskadi eta Andaluzia. Osasun ministerioak eta Erki-

degoek sinatutako akordioarekin erabilera lekuak murriztu egiten dira. Zigarro hauek ezin dira garraio publikoetan, leku publikoetan, haurren jolaslekuetan, erietxeetan eta hezkuntza zentroetan erabili. Produktu hauen publizitatea ere arautu dute. Oraingo legearekin tabernetan, jatetxeetan eta aisialdirakolekuetan zigarro elektronikoa erabili daiteke.

2014 urtean zigarro hauen erabilera Europa mailan arautzea espero da.

Prebentzio Programak

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutziak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

barrutik kanpora

Bai, Sakanan bizi eta lan

Abian taldearen lanarekin batera, Sakanan bizi eta lan leloa hedatu genuen gure bailaran zehar. Lema egokia bilakatu zen gure errebindikazio gutziak biltzen zituelako. Pairatzen ari ginen desindustrializazioaren aurrean gure lanpostuak eta bizitzeko modua defendatzea uztartzen zituen. Azkenaldian ez da gehiegi entzuten ari eta autokritika egitea tokatzen zaigu gaurkoan.

Egia da pertsona gutxi batzuek osatzen dugula Abian baina gure

eskaerek gizarte osoaren babesa dute eta horrek lanean jarraitzea animatzen gaitu. Gizarte honek sortzen duen zurrumbiloi-an galtzea erreza da (lana, bikotea, umeak, beste militantzia...) baina azken finean, hauek gutziak eskusak besterik ez dira konpromisoa ekiditeko garaian. Hazitako borrokan sinesten dugu eta berriro ere martxan jarriko gara lelo berdinarekin. Sakanan bizi eta lan.

Sakanan bizi nahi dugu, gure ohiturak mantenduz edo nahie-

ran aldatuz. Bizitza gauza konplexua da baina merezi duen bizitza bizi nahi dugu. Gure gutxienezko beharrak bermatuak izan nahi ditugu (osasuna, hezkuntza, oinarritzko errenta...). Bizitza ez da biziraupena eta gaur egun jende gehiegi ari da modu kaxkar batean bizitzen.

Sakanan lan egin nahi dugu, gure osasun fisikoa eta psikikoa bermatzen duen lana izan nahi dugu. Ordutegi eta egutegi argiak dituen, ongi ordaindu-

tako eta formakuntza ahalbidetatzen duena. Azken finean, gure bizitzarekin bateragarria den lana nahi dugu. Gaur egun esklatuta inoiz baino gertuago ikusten dugu. Inolako babesik gabe edozein motatako jarduerari lana deitzen zaio eta okerrena dena, eskertu egiten da.

Lana dugu aurretik eta bizirik gaude, horregatik inoiz baino ozenago SAKANAN BIZI ETA LAN!

Abian plataforma

gora/behera

Bertsolaritza
 Hezkuntza Departamentuaren trabak gora
 behera, errimatzen jarraituko dugu.

Jarraipena
 Etxarriko herri galdeketa
 ez da batzuen gogoko eta horregatik jarraipen zorrotza egiten ari dira.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Mainer Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Iker Uribeetxebarria Garmendia
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Oihana Zubeldia Jaka
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhua Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: GUAIXE KOMUNIKAZIOA • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SAKANA

Gobernuak haur eskolekin dituen konpromiso ekonomikoak ez ditu bete nahi

Aurtengo ikasturterako onartutako diru-laguntza %30 jaitsi nahi die udalei, haien bizkar zama berri bat utziz

Ikasturtearen erdia pasa denean eta udaletxe askok urteko aurrekontuak itxita edo ixtear dituztenean, apirilaren 1ean Hezkuntza Departamenduaren jakinarazpena jaso dute. Haur eskoletarako hitz emandako diru-laguntzaren %30 ez du ordainduko, dirurik ez duelako, eta izatekotan aurrerago pagatuko luke. Beraz, diru hori udalek jarri beharko lukete. Musika eskola, gizarte zerbitzu eta bestelakoetan bezala, diru sarrerak eskasak diren garaian Nafarroa-

ko Gobernu udalen bizkar uzten ari da herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuen mantenua eta jarraipenaren finantziazioa.

Udalak, jakina kexatu egin dira eta hasiera batean hitz emandako diru-laguntza osoa ordaintzeko eskatu diote Hezkuntza Departamentuari, hartutako konpromiso ekonomikoak betetzeko. Departamenduaren murrizketa proposamenak administrazio publikoen arteko harremanetan izan beharreko fede oneko eta konfiantzazko printzipioak urratzen dituela salatu du Altsasuko Udalak.

Departamentuak udalei bidalitako

32.431,61 euro gutxiago

Hori da Sakanako hiru udalek jasoko ez luketen dirua eta proposamenak aurrera egiten badu euren poltsikotik jarri beharko luketena. Lakuntza eta Arbizuko udalek 16.305,53 euro, eta azkenik, Altsasukoak 16.126,08 euro. Uharte Arakilgo Udalaren datuak falta dira.

ko proposamenean astelehenerako adostasuna edo ezadostasuna azaltzeko eskatu zieten. Askok izan dira kontra azaldu direnak. Hala, atzo Nafarroako Parlamentuak



Haurrak Uharte Arakilgo Pausoka haur eskolan. ARTXIBOA

Udalei diru gutzia ematea eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Bestalde, I-Ek eta GeroaBaik kontseilariaren agerraldia eskatu dute eta EHBilduk protesta gobernuaren egoitza aurrera eramandu. Gobernutik aurreratutako udalekin elkartuko direla diru partida nola handitu eta gastua nola arrazionalizatu aztertuko.

Ehunekoak

0 eta 3 urte bitarteko umeak hartzen dituzten eskolak hiru iturritatik finantzatzen dira. Udalek inbertsioaren %25a egiten dute eta gainontzekoa Hezkuntza Departamenduaren eta familien artean ordaintzen da. Urtero hitzarmenak sinatzen dira udalen eta departamentuen artean.

	Udalak	Familiek Osorik	Hezkuntza Departamentuak Murrizketarekin		Guztira
Lakuntza/Arbizu	45.689,70	82.709,10	54.352,02	38.046,49	182.750,12
Altsasu	31.542,40	40.873,60	53.753,61	37.627,53	126.169,61

*Uharte Arakilgo datuak falta dira.

Mank-ek udalekuetara doazenendako diru-laguntzak emanen ditu

Deialdi bat prestatzen ari da eta aurten sartuko da indarrean

Sakanako Mankomunitateak udan euskarazko udalekuetara joanen diren haur eta gaztetxoaren familiendako diru-laguntzak onartuko ditu. Deialdia zirriborrotua du Mank-ek eta onartzea besterik ez da falta. Mank-ek aurreikusi dituen baldintzen artean daude berak zuzenean edo zeharkakudeatutako udalekuak ez dituela lagunduko eta 5 eta 15 egun arteko iraupena izan beharko dutela. 5.000 euro bideratu nahi ditu horretara Mank-ek eta eskatzaile bakoitzari gehienez 125 euro ematea aurreikusi du.

+www.guaixe.net

Olatzagutia

Udalak gutxienez 17 pertsona kontratatuko ditu

Hainbat programen bidez egingen dira kontratazioak

Martxoko udal bilkuran onartu zuen Olatzagutiko Udalak aurtengo aurrekontua, 1.762.840 eurokoa. Bilduren aldeko botoarekin eta PPren kontrakoarekin onartu ziren aurrekontuak. (Sozialistek oraindik ez dituzte euren zinegotziak ordezkatu). Gurutze Rodriguez alkateak jakinarazi digunez, hainbat programen bidez aurten gutxienez 17 pertsona kontratatuko ditu udalak.

Pasa den urtean herriko oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak hasi zituzten eta egiteko horri segida ematen hasi dira kisu gile bat eta peoi bat. Sei hilabetez ariko dira lanean. Egur loteak markatu, baso bideak garbitu eta basoan bestelako lanak egiteko hiru hilabetetarako peoi bat kontratatuko asmoa du udalak.



Haurrak Olatziko Udan Euskarazen. ARTXIBOA

Gainera, oinarritzko errenta jasotzen duten bi edo lau pertsona ere kontratatuko dituzte, jaso-

tako diru-laguntzaren arabera. Haien egitekoa orain ari da zehazten udala eta 6 hilabetez ariko

dira lanean. Udan Euskaraz programarako bederatzi langilerekin eta festetan garbiketa lanak egiteko kontratatuko diren lau pertsonekin osatuko da zerrenda.

Inbertsioak

Udalak Erburua kiroldegia ireki ondoren kudeaketara 188.200 euro bideratu ditu. Musika eskolarako, berriz, 41.310 euro. Bestelako lanak ere aurreikusi ditu. Hezkuntza Departamenduaren laguntza jasoz gero, eskolan igogailua jarriko litzateke. Badaezpada udalak 77.000 euro bideratu ditu. Kaleetan hobekuntzak egiteko 42.000 euro izanen dira eta beste 10.000 euro dermioko bideak txukuntzeko.

Bestalde, Diario de Navarra zabalduzuen, PPko zinegotzi Oscar Alvarezek Javier Bados irainengatik salatu zuela iragarri zuen. Udalean ez dute jakinarazpenik jaso.

HIJOS DE GOIKOETXEA EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 · ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

» Arakil

Udalak autobusak Ekain, Zuhatzun eta Satrustegin gelditzeko eskatu du

Nafarroako Gobernuak aldaketak egin ondoren, 2012tik alde aurretik telefonoz eskatzen ez bada autobusak ez dira pasatzen

Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu dio autobusak Ekain, Zuhatzun eta Satrustegin gelditzeko. Udaletik gogorarazi dutenez, 1996an La Burundesari ibarreko garraio erregularra eman zitzaion eta 2012ra arte geldialdiak egin izan ditu aipatu hiru herrietan. Baina gobernuak arauak aldatu zituen eta eskaera zegoenetan gelditzera pasa ziren autobusak.

Udal ordezkari arakilarrak aldaketa hori egiteko arrazoirik ez dagoela salatu dute. Eta kezu dira autobus konpainia gaztigitzeko egunean bertan, txarteldegia



Satrustegiko autobus geltokia.

ordutegian, edo bezperan deitu behar delako telefonoz eta asteburuetan beste zenbaki bat delako. Sistema berria ezarri zenetik hainbatek hura erabiltzeari uko egin diotela azaldu dute udaletik.

Zerbitzu eskasagatik makina bat kezu jaso dituzte eta behar bezala ez duela funtzionatu azal-

du dute. Esaterako: txarteldegiko langileekin hitz egitea lortu ez edo erantzun desegokiak jaso dituzte arakilarrak; alde aurretik gaztigitu, zain egon eta autobusik ez pasatzea edota zain egon, autobusa ez pasatu eta taxia deitu behar gero La Burundesari faktura pasatzeko.

» Irurtzun

Ingurumena zaintzen ikasten

Ingurumen jardunaldiaren harira Arbizuko hondakindegia bisitatu dute dozena bat irurtzundarrek

Irurtzungo Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak antolatutako ingurumenari buruzko egitaraua bukatzean da. Martxoaren 21etik aurrera argindar kontsumorako alternatibak, ingurumenaren eragina izan den egitasmoen inguruko saiok, kontsumo arduratsuari buruzko hitzaldiak, tailerrak eta bisitak izan dituzte irurtzundarrek. Larunbatean Arbizuko hondakindegira bisita egin zuten Sakanan jasotzen diren hondakinak non eta nola amaitzen duten zuzenean ikusteko. Egitaraua ostiralean despedituko da ingurumena enpresetan gaiari buruzko hitzaldiarekin.

Irurtzungo ingurumen inguruko ekintzak oso interesgarriak izan direla esan dute parte-hartzaileek. Kontsumo arduratsua, goi tentsio linea, erraustegia eta ingurumenari buruz eztabaidatu ahal izan dute.



Arbizuko hondakindegian

Arbizuko hondakindegian Sakanako hondakinak jasotzen dituzte. Irurtzungo bisitariak hondakindegia gune bakoitzean zer egiten den ikusi ahal izan zuten. Galderak ere sortu zitzaizkien; haien artean industriak zer eta zenbat hondakin sortzen duen edo konpost-gailuen inguruko galderak. Gai horrek sortu zuen interes gehien, izan ere, nahiz eta Irurtzunen eta Altsasun gaikako hondakin bilketa oraindik ez duten jarri, bada Irurtzunen konpost egiten duenik. Hortaz, konpost ona egiteko hondakinei airea eman behar zaiela erantzun zioten hondakindegiko teknikariek, baita usain txarra ateratzen bada ere.

“Oso interesgarria izan da. Konturatu gara zenbat kontsumitzen dugun, kontsumitzen dugun hori non eta zein baldintzetan egiten duten eta nola bukatzen den hori guztia, hondakindegian”, adierazi zuten Arbizuko hondakindegira joandako irurtzundar batek.

Lakuntzako konpostagailuak Ondoren Lakuntzako konpost-gailuak ikustera joan ziren, izan ere, konpost-gailuak aldatzeko proposamena dago eta Lakuntzako eredia litzateke Irurtzunen jarriko litzatekeen modeloa. Dena dela, probaldia bukatu arte ez da ezer erabakiko.

» Bakaiku



Erabakitze eskubidearen alde

80 bat bakaikuarrek Gure Esku Dago ekimenari babesa eman zioten

Larunbatean erabakitze eskubidearen aldeko giza katea aurkeztu zuten Bakaikun. Gure Esku Dago ekimenak garagarriaren 8rako ira-

garri du Durango eta Iruñea lotuko duen giza katea. 123 km-ak lotzeko 50.000 lagun mobilizatu nahi dituzte, 12:00etatik 12:30era, eskutik eskura lotuta egoteko. Eta horren bidez herri gisa etorkizuna erabakitzeko

eskubidea aldarrikatuko da.

Ekimena bera eta eskubide hori gizarteratzeko Bakaikun larunbat arratsaldean lasterketa-bira eta aurkezpena egin zen. Ondoren familia argazkia eta auzatea egin zuten.

Igerileku taberna-jatetxea errentan emanen du udalak

Udaletxean eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 30ean bukatuko da

Uharteko Arakilgo Udalak igerileku ondoan dagoen taberna-jatetxea errentan eman nahi du eta horretarako lehiaketa-deialdia deitu du. Lizitazio prezioa 2.850 eurokoa da, BEZ kanpo. Udalak zehaztutakoaren arabera, ostalaritzako azpiegituraren kudeaketa hartzen duenak garagarriaren 15etik irailaren 15era zabalik izan beharko du, igerilekuen ordu-tegi berean. Urtearen gainontzeko egunetan, gutxienez asteburuetan, eguberrietan eta Aste Santuan zabalik izan beharko dute. Kontratu urtero berritzeko aukera dago. Uharteko Arakilgo Udalak igerileku ondoan autokarabanendako eremu bat egokitzeko tramiteak hasi ditu. Igerilekuko taberna-jatetxea hartzen duenak autokarabanendako espazio berri horren kudeaketa ere egin beharko du.

Baso enkantea

Arbizuko Udalak, enkante bidez, Basabeen dagoen zuhaitz lote bat saldu nahi du. 2.486 pago dira enkante bidez salgai jarriko direnak. 96,17 m kubiko zureta 1.827,23 metro kubiko egur egiten dute. Udalak 17.502,94 euroko (BEZ kanpo) balioa eman die. Interesatuak hila- ren 29ra arteko epea dute eskaintzak aurkezteko.

Errausketaren gaitzespena seinaleetan ikusgai

Udalerrri honek errausketa gaitzes- ten du. Testu hori duten hiru seinale daude Etxarri Aranazko hiru sarreretan: Gipuzkoakoan, Burundakoan eta Ergoienakoan. Etxarri Aranazko Udalak bilkuran onartuari segituz jarri ditu hiru seinale horiek. Ilbeltzean gauza bera egin zuten Bakaikuko Udalak.

Euskara, etorkizuneko elementu integratzailea

Euskaltzaleen Topagunearen batzarra zuzendaritza berritu du, Elena Laka da presidente berria

Irurtzungo Aizpea, Altsasuko Kima euskaltzaleen topaguneak eta Berririk fundazioa biltzen dituen Euskaltzaleen Topaguneak larunbatean batzarra egin zuen Gasteizen. Azken bi urteetan presidente izandako Mikel Irizarren lekua Elena Lakak hartuko du. Aurreko bost urteetan zuzendaritza aritu da. Irizarrek balorazioa egiterakoan euskaltzaleen mugimenduak landu dituen erroka berriak azpimarratu zituen. Era berean, euskararen normalizazioa ipar duten euskaltzale, gizarte eragile eta erakundeei dei egin zien, “oinarrizko adostasun batzuk lortu eta euskarak azken urteetan izan dituen sabai batzuk apurtzeko”. Topaguneko ordezkariak

Euskal Herriaren etorkizunean euskara elementu integratzaile bat dela adierazi zuten; hortaz, gizarte euskaltzalearen proiektu partekatu modura normalizazioan urratsa emateko aukerak areagotuko direla iritzi diote. Norabide horretan lanean jarraituko dute Topagunekoek.

KonpONbide bila

Euskal presoek eskubideen aldeko gutxienekoak adostu zituzten duela aste batzuk Donostian KonpONbideak ekitaldiko bultzatzaileek. 25 pertsona ezagun haien artean Pello Reparaz arbizuarrak dago. Orain presoek sakabanaketa, gaixo larrien askatasuna, iheslari eta deportatuen herriratzea eta salbuespen neurriak nola baztertu aztertzea topaketara deitu dituzte euskal herritar- rarak. Larunbatean izanen da, 10:00etan, Eskoriatzan Mondragon Unibertsitateak duen HUHEZI fakultatean. Informazio guztia www.herritarrentopaketa.net atarian dago.

Zornoza NEJeko zuzendaritza

Nafarroako Ezkerreko Junta Errepublikanoak larunbatean urteko batzarra egin zuen Burlatan. II. Errepublikaren kontura antolatutako ekitaldian parte hartzeraz deitu zuten, bereziki larunbatean, 12:00etan, Iruñeko Gaztelu Biratik abiatuko den manifestazioan. Batzarra ere zuzendaritza berritzeko baliatu zuten eta haien artean Tomas Zornoza altsasuarra izan zen aukeratua.

Errepublika gogoan

Espainiako II. Errepublika 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu zuten, astelehenean 83 urte. Efemeridea gogoan eta balio errepublikanoak aldarrikatzeko astelehen eguerdian ekitaldia egingen du IUN-NEBK. Udaletxe parean dagoen soldadu langileen 95. batailoia omeneko oroigarriaren aurrean manifestu errepublikanoa irakurriko dute. Arratsaldean, 19:00etan, Jose Migel Nuin IUN-NEBKo koordinatzaileak eta Javier Drona historialariak hitzaldia emanen dute Iortia kultur gunean. II. Errepublika, bere politika aurrerakoia, gizarte justizia eta beste izanen dituzte hizpide. III. Errepublika aldarrikatzeko gaur egun dagoen giroa ere aipagai izanen dute. Galderetarako txandarekin despedituko da saioa.

**PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!**

Berria erosi taldea

» Arakil

Udalak bost peoi eta gizarte dinamizatzailea kontratatuko ditu



Arakilen aurretik langile kontratazioak egin izan dira.

Sei hilabeterako izanen dira kontratuak. Eskaerak hilaren 15era arte aurkeztu daitezke udaletxean

Arakilgo Udalak jakinarazi du lehiaketa-opsio bidez sei lanpostu bete nahi dituela: lanen lantaldean ariko diren bost peoi eta gizarte dinamizatzailea. Aurrenekoek udal eraikinen eta zerbitzuen mantenu eta zaintza lanak egin beharko dituzte. Horrekin batera, kisuskil, lorezaintza eta bide mantenu lanak ere egin beharko dituzte, besteak beste.

Gizarte dinamizatzailea lanaldi erdian ariko da eta hiru egiteko izanen ditu. Batetik, langabetuei eta ekintzaileei laguntzea eta aholkatzea. Bestetik, udalaren kultura

agenda kudeatzea eta, azkenik, Arakilen etxebizitzari buruzko ikerketa egitea (hutsik dauden etxebizitzak, dagoen eskaera, Nafarroako Gobernuarekin harremana).

Peoien kasuan epaimahaiak kontuan izanen du hautagaien egoera pertsonala. Hau da, denbora luzez langabezian daraman edo ez, 30 urte baino gutxiago edo 45 urte baino gehiago izatea, alokairua, diru-sarrerarik ez izatea edo hipoteka izatea edota familia ardurak izatea.

Eskaerak

Hautagaiak onartuak izateko bete beharreko baldintzak dira: Arakilen erroldatua egotea, adinez nagusi izatea, eskola ziurtagiria

izatea, egin beharreko lanak eragozten duten gaitzik ez izatea, inhabilitatuta ez egotea eta B mailako gida baimena izatea (peoien bi plaza azken hori ez dutenei emanen zaizkie).

Udaletxean aurkeztuko dira, hilaren 15era arteko epea dago horretarako. Peoien deialdian, instantzia beterekin batera nortasun agiriaren eta B mailako gida baimenaren kopiak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek. Norberaren merituek ziurtatzen dituzten agiriak ere gehitu beharko dituzte. Gizarte dinamizatzaile posturako, berri, goi gradua edo batxilergoa eta EGA eskatzen dira.

» Irurtzun

Bultzada Senegalgo kontsultategiari

Itxipururen ekimenez 1.740 euro jaso dira osasun azpiegitura bulkatzeko

Senegalgo Darou Salamen osasun kontsultategia eraikitzeke eta hango populazioari beharrezko zerbitzua emateko proiektua lagundunahizuen Itxipuruk oraingoan. Pasa den astean egindako afarian 640€ bildu zituzten ekimena laguntzeko. Eta igandean izandako azokan 1.100 €. Kopuru handia, eguraldiak lagunaskok beste egiteko batzuk lehenetsi zituelako plazako azokatik pasatzea baino. Hala ere, irurtzundarren eta sakandarren bilgune bihurtu zen azoka.

Perura

Tabernaxoa jarri zuen plazan. Han saldutako edari, infusio eta gozokin 350€ lortu ziren. Diru hori Peruko Urubamba herriko familia bati emanen zaio. Bere kideetako bat tetraplegikoa da eta haren osasun beharrak laguntzeko izanen da dirua. Idoia Altzuetak GKE batekin herrialdera 2003an egin zuen bidai batean ezagutu zuen familia. Orduz geroztik harremana mantendu du. Altzuetak gaixoaren egoeraren berri bere inguruan zabaldu zuen eta haren osasun premiak laguntzeko hileroko dirua bidaltzen dute, gurgildun aukirako dela, koltxoia aldatzeko dela...

» SAKANA

Langabeziaren isla datutan

Lau urtetan langabezia %169,92 hazi da Sakanan

CCOOn Ikerketa Bulegoak Lan merkatua eta langabeziaren lurralde-inpaktua Nafarroan lana publiko egin zuen atzo. Ikerketa hori egiteko EPAko, enplegu zerbitzu publikoetako eta gizarte segurantzako datuetan oinarritu dira Nafarroan eta bere eskualdeetan langabeziaren errealitatea zein den jakiteko.

Azken hilabeteetan onerako joera sumatu badute ere CCOOko ikertzaileek azaldu zuten oraindik goiz dela ekonomiaren joera aldaketa bat dagoela esateko. Nafarroan, EPAREN arabera, langabezia %16,83 dela gogo-

rarazi zuten (EAEren ondotik estatuko kopuru txikiena). Beste hainbat datu eman zituzten. Horien artean gero eta langabetu gutxiagok jasotzen duela prestazioa: 2010ean %80,6 ziren gaur egun %60,33. "Prestazioak bukatu eta gizarte ahultasun egoerak handitu egiten dira".

CCOOko ikerlariek Nafarroa azpi-eskualdeetan banatu dute eta ibarra bitan banatu dute: Sakana ekialde-erdialdea (Arakil, Iturmendiaraino) eta Burunda mendebaldea (Urdaibai, Ziordira). Lanak erakutsi du krisiak gogorrago jo dituela eskualde batzuk besteak baino. Eta azken horien artean dago Burunda mendebaldea.

Langabezia eskualdeka			
Eskualdea	2008ko otsaila	2014ko otsaila	
Sakana ekialde eta erdialdea	%6,88	%18,30	
Burunda mendebaldea	%7,11	%27,02	
Nafarroa	%8,05	%18,02	

Langabezia eta aldaketa				
Eskualdea	2008	2014	Aldea-kopurua	Aldea-ehunekoa
Sakana ekialde eta erdialdea	310	721	411	%132,60
Burunda mendebaldea	345	1.068	723	%209,60
Sakana	655	1.768	1.134	%169,92
Nafarroa	24.592	53.082	28.490	%115,90



Langabezian luze daramatenak, eskualdeka			
Eskualdea	2008ko otsaila	2014ko otsaila	
Sakana ekialde eta erdialdea	%27,74	%38,70	
Burunda mendebaldea	%26,09	%38,39	
Nafarroa	%24,66	%37,32	

Langabezian luze daramatenak eta aldaketa				
Eskualdea	2008	2014	Aldea-kopurua	Aldea-ehunekoa
Sakana ekialde eta erdialdea	86	279	193	%224,40
Burunda mendebaldea	90	410	320	%355,60
Sakana	176	689	513	%291,47
Nafarroa	6.064	19.811	13.747	%226,70

TxikiTxo
haurren atropa eta lehenetaria

948 46 73 08
Ferialeku 2 - ALTSASU

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

LARRAZA
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

Jose Larraza Legarra
Etxebizitzen administratzailea
Kolegiatu zenbakia: 378

Bizilagunen komunitateak
Etxebizitzen administrazioa

Etxaburua kalea, 1 beheko solairua
31013 Berriozar
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634
Jose.larraza@gmail.com

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak

INSTALAZIO
ETA MANTENTZE-LANAK

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

ESKAINNTZA BEREZIAK

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak

Iruñea
948 382 271 - Maturak 671 619 018
www.prevencionezkaba.com

LARRAZA ARDOAK
Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

>> Irurtzun

Inasako langile ohiek Baikap-eko buruak auzitara eraman dituzte



Inasaren afera ez da oraindik bukatu.

Dokumentuak faltsutzea, iruzurra eta zigortzeko moduko kaudimen gabezia delituak egozten dizkiete

Inasako 120 langile ohik ostiralean Iruñeko auzitegian Bavaria Industrial Kapital AGeko (Baikap) administrazio kontseiluaren (Harald Ender, Hans Magnus Andresen eta Wolfgang Lichtenwalder) eta zuzendaritzaren (Santiago Gonzalez Berganzones) kontrako kereila kriminala aurkeztu zuten. Langile ohiek pasatakoa pasa ondoren, babesgabe eta defentsa gabe sentitu arren, euren poltsikotik ordaindu dute kereila. Eta epaileak arrazoia eman ezgero, kereilatuek erantzukizun zibil subsidiarioari eta hiru eta sei urte arteko espetxe zigorrari egiten liekete aurre.

Auzitara

Langileek Baikapeko buruak auzitara eraman dituzte "Inasa bizi eta pairatu dugun bezalako egoerarik berriro pasatzea nahi ez dugulako". Gainera, enpresan zer gertatu zen, "guztia argitze" beharra dutelako. Kereila jartzeko beste arrazoia da Inasakoak Sakana eta Nafarroa guztiari eragiten diola. Bide batez, "egin dutena eta gero, Baikap-eko buruek aparteko etekinik ez lortzea" nahi dute kereila jarri dutenek. Horregatik, Baikap-eko buruen ardurak zehaztea nahi dute. Langile ohiek, aldi berean, kaltetuendako ordain moralala eta soziala nahi dituzte.

Bitartean

Inasakogizarte-aurreikuspeneko planean langileendako pensioen osagarriko eskubidea jasoa zegoen. Hura ezin kobratu daude langileak eta negoziatioetan ari dira. Bestalde, hartzekodunen konkurtso informea egin du merkataritza-erloto epaitegiak. Epaileak hartzekodunen konkurtsoetik banatu egin du gizarte-aurreikuspeneko plana. Erabaki hori langile ohiei zuzena iruditu zaie. Hala ere, konkurtsoaren seigarren fasean daudela eta alegazioak aurkeztuko dituzte, Baikapeko buruak errudun jotzeko eskatuz. Gainontzeko hartzekodunek ere eskaera bera egitea nahi lukete langile ohiek.

Lau milioi euro

Baikap-eko buruei lau milioi euro etengabe estaltzea leporatzen diete langile ohiek. Horretarako balantzeak okertu eta finantza egoera desitxuratu zuten. Horrela lortu zuten Langileen Estatutuan oinarrituz 2012an langileei soldatak jaistearen lehenik eta kontratuak haustearen ondoren.

>> Altsasu



Arfeko zuzendaritza itxieraren errudun

2011n itxi zen enpresa eta 156 lanpostu galdu ziren

Arfeko itxierako konkurtso epaian erruduntzat jo zuten Merkataritza-erloto 1. epaitegiak. Pasa den urtean emandako epaian epaileak bere egin zuten Arfeko konkurtso administratzaileak eta fiskaltzak egindako eskaerekin. Hala, Ramon Arza hamar urterako gaitasungabetu zuten eta Aitor Arza eta Isabel Lezea bost urterako. Aldi berean, sozietateari kalte-galerengatik 9.230.100,02 euro ordaindu beharko dituztela jaso du epaiak. LAB sindikatutik adierazi dutenez, "Arfe itxi eta bi urte beranduago jakin dugu aspaldidanik langileek salatutakoa: zuzendaritzaren gestioa izan zen itxieraren arrazoi nagusia".

LANPOSTUEN GALERA

Krisia hasi zenetik Inasaren eta Arferen itxierak Sakanan galdutako lanpostuen %30 suposatu dute, LABek jakinarazi duenez.

>> Olatzagutia

Udaberriari ongi etorria zeramika eta artisau artean

Larunbatean 16:30etik aurrera eta 13an, domekan 10:00etik aurrera Olatzagutiko Erburua kiroldegian

Makina bat elikagai, bitxiak, dekoratutako oihalak, birziklatutako jantzi eta objektuak, oinetako dekoratuak, kosmetika produktuak eta bestek hartuko dute asteburuan Erburua kiroldegia. Artisau sakandarren eta gipuzkoarren 30 bat posturen artean non aukeratu izanen du bisitariak. Olatzagutiko Udalaren eta Erburua kiroldegia laguntzaz antolatuta dute artisauak azoka.

Iturmendiko Luisa Ortiz zeramista titulatuak, bestalde, zeramika erakusketa jarriko du Erburuan. Mota guztietako piezak ikusteko aukera izanen da, zeramikak ematen dituen diren pieza guztiak ez dira salgai egonen, baina enkarguak egiteko aukera izanen da.

Ortizek berak haurrei zeramikaren artea erakusteko tailer bat emanen du. Miren Goikoetxeak eta Toñi Amado sakandarrek, berriz, eskulan tailerrak emanen dizkiete txiki. Ana Agirrek, bestalde, nahi duen guztiari aurpegia margotuko dio. Ortizek, bestalde, zeramikako zenbait tekniken inguruko azalpena eta erakusketako obren gaineko argibideak emanen ditu. Gainera, bihar, 18:00etan Bocalan Biak Bat elkarteak terapietarako txakurren lana zein den erakutsiko du.

Zozketa

Parte hartzen duen artisau bakoitzak erramu bat egingen du eta bisitarien artean hautatutako epaimahaiak originalenari saria emanen dio (kiroldegiko jatetxean birendako bazkaria).

>> Olatzagutia

Salsakana, salsa dantzatzeko gonbitea

Bihar salsa dantzaren zaleen topaketa izanen da. Doako dantza tailerra izanen da Labaderon 12:00etatik 13:30era

Bosgarren urtez jarraian Salsakana topaketa egingen da, salsa dantzatzea maite dutenek edo hura ikasi nahi dutenen bilkura izan nahi duena. Juanan Paolomo dantza irakasle altsasuarra esan digunez, doako tailerren ondoren Kaixo taberna-jatetxean dute hitzordua eta eguraldiak laguntzen badu, kanpoko aldean dantza egingen dute. Han bazkaldu eta gero dantzaldia barruan segituko dute. Gartzia Ximenez kalea zeharkatu eta Xume tabernara joan dira han afaldu eta ordu txikiak arte dantza saioekin segitzeko.

Dagoeneko 35 bat pertsonak emanen dute izena, haietako 10 sakandarrik. Salsakanako bazkarira joan nahi duenak 609 379 503 telefonora hots egin behar du, gaur da azken eguna. Mahaira eseri gabe ere dantza saioetan parte hartzea bat baino gehiago animatuko da.

Galdeketa tagatik udala jarraipen judizial estua izaten ari da

A13 ekimenak antolatutako herri galdeketa dela eta, Etxarri Aranazko Udala argi utzi nahi izan du galdeketa antolatetako ez duela inolako parte hartzerik. "Udalak ez du utzi behar inolako giza baliabiderik, giza materialik edo eraikinik galdeketa egin dadin, ez baita galdeketa antolatzailerik". Udalak, bestalde, erabakitze-ko eskubidearen alde egindako adierazpena berretsi du.

Astelehenean udaletxean Nafarroako fiskaltzaren jakinarazpena jaso zuten. Ohar horren bidez fiskaltzak jakinarazi du herri galdeketa konfiantza udalari prebikazio administratiboa, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea eta desobedientzia delituengatik prozedura zabaldu dela eta ikerketan laguntzea eskatu zuten. Aurretik, martxoaren 27an, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuko zuzendari nagusi Francisco Perez Agirrek oharra bidali zuen. Hartan udalagaztigitzen zuten ezin zuela inolaz ere ezertan lagundu A13 ekimenak. Etxarri Aranazko Udala galdeketa babes-tuz adierazpena onartu zuen eta Perez berak bilkurako akta eskatu zuen.

Egun osoko festa

Igandea parte hartzearen festa izatean nahi du A13 ekimenak eta, horregatik, ospakizun egitarau zabala antolatu du.



>> Egitaraua

9:00etan Hasiera ekitaldia plazan.
9:30etan Gaiteoak, albokak eta trikitaliak.
10:00etan Erraldoi eta buruhandiak herrian zehar. Artie kalia: koloreztatu zure iritzia panela plazan.
10:30etan Auzate mundiala. Karikestu eta Udaberri elkarteak.
11:00etan Etorbizuna dantza taldea.
12:00etan Herri kirol bereziak. Bizikleta, aizkora, auto tiratze, jarri jasotze eta belar bola frogak.
13:15etan Etxarriko musikariak: herriak kanta dezala.
14:30etan Herri bazkaria eta bertsolariak: Arkaitz Estiballes eta Julio Soto.
17:00etan Porrotzekin kalejira, bihurrikeriak eta muxuak.
17:30etan Pilota partidak: 4 1/2an Joanes Bakaikoa / Ander Arandia. Mikel Goñi-Fernando Goñi / Sebastian Gonzalez-Adur Lasa.
19:30etan Gozategi.
21:00etan Akabera ekitaldia plazan.

Egunean zehar

- Sakanako produktuen feria erraldoia.
 - Haurrendako gunea, ikastolako patioan (10:30etik 14:30era) haur-tuzaindegia, haur jolasak, Txui Xoo erakustaldia...
 - Txoznak, taloak, bokatak...
 - Musika, jaita, parte hartzea...

Sakanako

Bilaldi Handia

IRURTZUN 2014KO APIRILAREN 26a

IBILBIDE LUZEA IRTEERA: 06:30 Izen ematea: webgunean, apirilaren 1etik 23ra
 IBILBIDE MOTZA IRTEERA: 07:30 LUZEA: 52,5 km. 3100m igoera www.iratxoelkartea.com
 MOTZA: 24,4 km. 1400m igoera emaila: iratxomendi@gmail.com

ANTOLATZALEA: Iratxo Elkartea
 LAGUNTZALEAK / Colaboradores: Iruñeko Udala, Nafarroako Gobernua, SUYA, Kaiku, CAJA RURAL, KOMUNKARDEAK, kot, locutolo, berria, GUAIXE.NET, belexe, Noticias

Herri Galdeketa Etxarri Aranatzen

Galdera erantzunen zain

Independentziari buruzko herri galdeketa eginen da etzi

A13 ekimenari izena ematen dion eguna, apirilaren 13a, bertan da. Etzi eginen da Etxarri Aranatzen herri galdeketa. Nahi duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan? galdera luzatu die A13 ekimenak herritarrei. Etxarriarrek baiezkoarekin, ezezkoarekin edo boto txuriarekin erantzuteko aukera izanen dute. A13 ekimeneko Manu Gomezek esan duenez igandekoa "iritzi guztien topaleku" izanen da, joera ideologiko guztietako kideek euren iritzia emateko aukera izanen dute.

Galdeketa antolatzaileak herritarrek parte hartzea deitu dituzte, hori baita galdeketa helburuetako bat parte hartzea bultzatzea. Bestea, eskubide demokratikoak bermatzea. Etzi boza emanez demokrazian sakontzeko aukera dela diote. "Herri honen etorkizuna herritarren esku dago. Gure herria iritzi ezberdinak dituen herritarrez osatua dago eta hortaz, iritzi guzti horien errespetuan oinarritua beharko luke gure herriaren etorkizunak", esan zuen Adur Goikoetxeak, ekimenaren bultzatzaileen bozeramaleak, aurkezpenean.

Erabakitze eskubidearen ariketa praktikoa ere izanen dela diote zeinetan irabazle bakarria Etxarriko herria izanen den. Galdeke-

ta sinbolikoa da, ez loteslea. Baina Kataluniako ispiluan begiratu gero, atzetik galdeketa bat baino gehiago etorriko dela aurreikus liteke. Etxarriarrek, beraz, bidea zabalduko dute.

Araudia

16 urte dituzten etxarriar guztiek parte hartu dezakete herri galdeketa. Horretarako kiosko parean dagoen hautes-lokaletik pasa beharko dute, 9:00etatik 20:00etara. Nortasun agiria, pasaporte edo EHNA onartuko dituzte han. Dokumentua iraungia badago edo gaur egun jabea Etxarri bizi dela adierazten ez badu, errolda agiria eraman beharko du.

Europar Batasunetik kanpo sortu direnek Bizileku-Txartelarekin aski izanen dute herri galdeketa parte hartzeko. Europar Batasuneko herrialderen batean sortu direnek, aldiz, koomunitateko erregistroko inskripzio egiaztagiria eta pasaportea edo nortasun agiria erakutsi beharko dituzte.

Errolda

Espainiako Zentsu Bulegoaren martxoaren bateko datuen arabera 1.951 etxarriar daude zentsatuta Europako hauteskundeetan izena emateko. Dagoeneko haietako 36ren botoak jasoak ditu A13ren ekimenez egindako herri galdeketa. Aldez aurretik boza emateko aukera baliatu duten pertsonak



Herri galdeketa antolaketan 200 pertsona ari dira lanean.

dira euren iritzia duen papera hautestontzian sartu dutenak. Horietatik 20 igandean Lizarraga-bengoan egin zen aurretiko boto jardunaldian jaso ziren.

Beleixe irratia zuzenean

Sakanako irrati eskaldunak igandean zuzeneko saioa eginen du, herri galdeketa berri emateko. 10:00etatik 13:30era bitartean goiz partean gertatutakoaren berri emanen da eta arratsaldean, 20:30etik 21:30era, emaitzaren berri eman eta balorazioak jasoko dira. www.guaixe.net atariaren bidez eta bi hedabideen sare sozialen bidez ere jarraipena eginen zaio galdeketa.

Kronologia

2012-12-03 Etxarri 2012 ekimenak Zer manifestua eta erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketa egiteko asmoa aurkeztu zuten. Galdera honakoa zen: Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?

2013-01-25 Etxarri 2012 ekimeneko kideek udaletxean autodeterminazio eskubidearen inguruan etxarriarrei galdera egiteko eskaera erregistratu zuten.

2013-02-02 Sinadurak biltzen hasteko festa antolatu zen.

2013-04-18 Herri galdeketa eskaera babesten zuten 360 sinadura aurkeztu zizkioten udalari.

2013-05-10 Udalak autodeterminazio eskubideari buruzko herri kontsulta proposamena tramitatzea onartu zuen.

2013-05-15 Galdeketa eskaera Nafarroako Lehendakartzan erregistratu zuten Bilduko eta NaBaiko udal-ordezkariek, Etxarri 2012+1 ekimeneko kideekin batera.

2013-05-31 Nafarroako Gobernuak udalari eskatu zion hartutako erabakia bertan behera uzteko (165/2013 Foru Agindua).

2013-06-02 Nafarroako Gobernuak administrazioarekiko auzien epaitegira eraman

zuen udalak maiatzaren 10ean hartutako erabakia.

2013-09-20 Autodeterminazioari buruzko udal erabakia zuzentzeko indargabe utzi zuten. Iruñeko administrazioarekiko auzien 2. epaitegiak.

2013-09-25 Etxarri 2012+1 ekimenak udalari eskatu zion gatazka juridiko antzua saihestu zitzala, horretarako eman behar diren pausok emanaz.

2013-10-10 Herri galdeketa egitekotan zerotik abiatuta egitea erabaki zen batzarrean. Horretarako, ahalik eta pentsaera ezberdin gehien batu eta denen artean talde motorra sortzea egoki jo zen.

2013-12-28 A13 ekimenak herri galdeketa apirilaren 13an izanen zela iragarri zuen.

2014-01-04 Batzarrean, sei aukeren artean, herri galdeketa galdera zehaztu zen.

2014-02-01 Kataluniako herri galdeketa esperientziaren berri eman zuten Anna Arqué eta Josep Manel Ximenis.

2014-02-20 Batzarrean galdeketa prestatzeko arautegi orokorra adostu zen.

2014-03-19 Galdeketa ikuskari taldea aurkeztu zen.

2014-03-27 Aldez aurretiko botoa emateko epea zabaldu zen.

2014-04-13 Herri galdeketa.

Galdeketa ikuskariak

Araceli Markotegi (Etxarriarra. Abokatu laboralista jubilatua. Ikuskarien koordinatzailea). **Maidor Goñi** (Etxarriarra. Aurreko legegaldiko alkatea). **Mario Zubia-ga** (EHUKO politika irakaslea eta Euskal Nazionalismoari buruzko masterraren burua). **Josep Manel Ximenis** (Kataluniako lehen herri galdeketa, Arenys de Munt-eko galdeketa bultzatzaile eta

koordinatzailea). **Anna Arqué** (Kataluniako kontsultaren aldeko koordinakunde nazionalen komunikazio eta nazioarte batzordeetako arduraduna). **Tatjana Zdanoka** (Letoniako. Aliantza Libreko eurodiputatu). **Jan Van Esbroeck** (Belgika. Parlamentu federalean NVAKO diputatu) eta **Iñaki Irazabalbeitia** (Aralarreko euro-parlamentaria).

ZERGATIK UKO EGIN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

CITROËN LANAK

GARDENTASUNA, ZORROZTASUNA ETA FABRIKANTEAREN BERMEA

DISTRIBUZIO KIT-A

PSA TALDEKO (PEUGEOT-CITROËN) JATORRIZKO PIEZETAN

%30 EKO DESKONTUA

ZURE IBILGAILUAK 5 URTE EDO GEHIAGOKO ANTZINATASUNA DAUKA? CITROËNEK ZURE IBILGAILUAREN ANTZINATASUNARI BEREZIKI EGOKITUTAKO ERAGIKETAK PROPOSATZEN DIZKIZU. INFORMAZIOA CITROËNEKO BANATZAILE OFIZIALARI ESKATU.

CITROËN nahilago du TOTAL

(*) Begiratu eskaintzaren baldintza orokorrak eta eskatu konpromezunrik gabe zure CITROËN autoarentzat aurrekontua. Indarean dauden beste eskaintza batzuekin ez da bateragarria. Argazkia ez da kontratuzkoa.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657



CRÉATIVE TECHNOLOGIE



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA


www.tanatoriosirache.com



Iñaki Lacha Lamas

Oso goiz joan zara, goizegi. Zure falta nabaritzen dugu jadanik. Bihotzeko min hau ez dakigu nola lasaitu. Jakin ezazu herensugeak ehizatzea ez dela berdina izango zu gabe. Maite zaitugu.

Altsasuko zure familia



Mario Lopez de Uralde Muñoz

X. urteurrena

Bihotz beroa,
atsegina,
su eder bat bezalako
neguko gau hotzean.

Maite zaitugu

Etxekoak

Eugenia Larraza Marin



Gu tristuran barnen,
pozik gaude
bakigulako zoriontsu zala,
osaba Pellon onduen.
Haiziek yamanzala gu musubek
zuek zaudien lekue.
Eskerrik asko izeba
gu biziyen yondu zalakos.

Eskertzak eta eskelak osteguneko
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.net-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Etxebizitzak salgai

Adosatua salgai Uharte Arakilen. Jantzita.
135.000 €. 615 74 34 90.

IKASTAROK

AES. "Oinarriko enpresa-ingelera", Arbizun, 70 ordu, apirila-ekaina; "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; "Ekoizpena eta biltegien kudeaketa: denbora eta kostuen murrizketa", Arbizun, 80 ordu, apirila-ekaina; "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEei aplikatutako trebatu pertsonalak", Arbizun, 35 ordu, ekaina; "EXCEL 2010: informazioaren kalkulua eta kudeaketarako baliabideak", Altsasu, 40 ordu, apirila; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

UGT. Ofimatika: apirilaren 23tik ekainaren 26ra.

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatzen ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak:

izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.
Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/ 948467120

LEHIAKETA

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Baratza baten bila nabil Lakuntzan. Uztearen truke baratetik jasotako uzta zati bat emanen dizut. Primeran zainduko dut lur eremua. Nire telefonoa 603 83 15 79 da.

Basomutur jatetxean. Hemendik aurrera, atsedeen eguna astelehenetan izanen da.

Etxarriko galdeketerako boluntarioak. A13 ekimenak herri galdaketa egin ahal izateko boluntarioak behar ditu hurrengo batzordeetan aritzeko: mahai elektorala, informatika, segurtasuna, aurretiko boto sekretua, komunikazioa, begiraleak eta ekitaldeak. Interesatuak 620 37 83 38 telefonora hots egin edo 2014a13@gmail.com e-

postara jo.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpentak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren errietoak errespetatzen dituen eskola libre. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonek.com/laguntza euskonek@euskonek.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritza - trukea. Informazio gehiago

larrezabaldk@inigoaritz.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpentak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixen txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean "<http://www.guaixe.net>" www.guaixe.net.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetal, ezitia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

JAIOTZAK

- **June Perez Cordero**, martxoaren 18an Uharte Arakilen.
- **Nahia Macia Goikoetxea**, martxoaren 30ean Etxarri Aranatzan.
- **Itsaso Aldaz Herrero**, apiribilaren 1ean Altsasun.
- **Eneko Ibañez de Opakua Ormazabal**, apiribilaren 6an Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

- **Emilia Marroyo Lopez**, apiribilaren 4an Altsasun.
- **Eugenia Larraza Marin**, dorrobarra, apiribilaren 5ean Etxarri Aranatzan.
- **Joaquina Agirre Albisu**, apiribilaren 7an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Oroigarriak

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

IGANDEAN PILOTA IKUSKIZUNA ETXARRIN:

Etxarri Aranatzek igandean antolatu duten A13 galdeketa eta egun osoko festaren barruan, 12:00etan herri kirol bereziak iza-

nen dira eta 17:30ean pilota partidak: Bakalkoa / Arandia eta Mikel Goñi-Fernando Goñi / Sebastian Gonzalez-Adur Lasa

Mendia-Parapentea**Hegan-volar: 0-8.000**

Jose Ramon Agirre "Marron" mendizalearen parapente esperientziez gozatzeko aukera Altsasuko lortian, bihar, 19:00etan

Aski ezaguna da Jose Ramon Agirre "Marron" Ataungo mendizale beterranoa. Egun Lizarrustiko aterpea kudeatzen du, baina mendi argazkilaria, parapentelaria eta hamaika espedizioetan ibilitakoa da. Aipatzekoa da, adibidez, Broad Peak (8.047m) mendian gora, 7.200 metroko garaieratik parapentez jauzi egin zueneko. Ordu erdiz ibili zen hegan zortzi milakomendien artean, irudi ikusgarriak hartzen.

Hain zuzen ere, mendia eta parapentea batzen dituen Hegan-Volar: 0-8.000 izeneko proiektzioa ekarriko du Marronek bihar, larunbatean, 19:00etan, lortia Kultur Gunera, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta. Parapentetik hartutako irudi ikusgarriez gozatzeko aukera izango da: Euskal Herriko mendietatik hasi, Pirinioetatik, Hego Amerikako eta Himalayako paisai ikusgarrietara.

Txirrindularitza

Asteazkenean Itzulia Sakanatik pasa zen.

Valverde eta beste San Migeleko igoera ikuskatzen

Espainiako Vueltako etapa bat, irailaren 3koa, Iruñean hasi eta Aralar-ko Santutegian despedituko da, Uharteko Arakilgo pistatik igota. Bada, egunotan Euskal Herriko Itzulia jokatzeko zela aprobetxatuta -asteazkenean Sakanatik pasatu zen lasterketa ezagun hori-, Movistarreko txirrindulariak, Alejandro Valverde tartean, pistako igoera ikuskatzen aritu ziren. 2 autotan igo ziren San Migelera. Hemendik irailera bitartean makina bat txirrindulari hurbilduko dira Espainiako Vueltan zeresana emango duen etapa ikuskatzera.

Pilota**Atzerapena**

XALAK ETA ZUBIETAK IRUJO-BARRIOLAREN KONTRA JOKATU BEHARREKO FINALERDI ERABAKIORRA APIRIBILAREN 21ERA ARTE ATZERATU DUTE, IRUJO ESKUKO MINAREKIN DAGOELAKO

Aimar Olaizolak eta Aitor Aretxabaletak Binakako finalerako txartela lortu dute, igandean Atano III. ean Yves Xala eta Aitor Zubietarengainetik pasa ondoren. Asegarekoek 22-3 irabazi zieten Aspekoei, di-da batean. Goizuetarrak bere 6. finala jokatu du; 21 urteko Aretxabaletak, aldiz, lehenengoa.

Deseroso

Xalak eta Zubietak deseroso jokatuzuten. Donostiako Atano III. ean ezzuten bere tokia aurkitzen. Zergatik? Aimar Olaizolarengatik. Nahiz eta lehendabiziko tantoak txapara jo, Xala eta Zubietaren alde, Goizuetako aurrelaria hasieratik hasi zen agintzen eta tantoa

3. jardunaldia

Olaizola II.a-Aretxabaleta / Urrutikoetxea-Beroiz (larunbatean Iruñean. NITRO)
Irujo-Barriola / Xala-Zubietak (apiribilaren 21ean Bilbon. ETB1)

bata bestearen atzetik pilotzen hasi ziren Asegarekoak, takada batean 17 tanto partziala lortuz. Xalak eta Zubietak ezin izan zioten egoerari buelta eman.

Olaizola eta Aretxabaletak primeran elkar ulertu zuten, eta goizuetarrak pilota asko kendu zizkion atzelariari. Errematean bikain arituzen Olaizola. Aldiz, igandekoa ez zen Xalaren eta Aitor Zubietaren eguna izan eta 22-3 galdu zuten.

Xala-Zubietak edo Irujo Barriola?

Olaizola-Aretxabaletaren kontra finala nork jokatu duen dago erabakitzeko. Urrutikoetxeak eta Beroizek orain arte jokatu duen bi partidak galdu dituztenez, finaleratik kanpo daude. Hortaz, atentzioa Xala-Zubietak eta Irujo-Barriolak apiribilaren 21ean Bilbon jokatu duen partidaren egongo da. Partida horretako garailea sailkatuko da finalerako. Partida igandean jokatzeko zen, baina Irujo atzerapena eskatu zuen, eskuko minarekin dagoelako. Enpresen Ligako epaileak atzerapena onartu dio eta Aste Santuko azkeneko festa egunetan, apiribilaren 21ean, astelehenarekin, jokatu da esperotako lehia. Finalean egotea dute jokoan bi bikoak eta hil a biziko partida izanen da. Ea Xalak eta Zubietak beste final bat jokatzeko aukera duten.

Ezkurdia eta Chafé Garferekin

Garfe enpresak 2014ko denboraldia aurkeztu du. Muebles Polque enpresak babestuko du taldea. Aurten 22 pilotarik osatuko dute Garfeko plantilla, eta enpresaren asmoa Euskal Herrian eta Errioxan pilota jaialdi ederrak antolatzea da. Pilotarien artean afizionatuen mailan dabilen Mattin Ezkurdia arbizuarra eta Ismael Chafé pilotari profesional ohi zuzatzailea daude.

Olaztiko 43. San Migel Binakako Txapelketarako izena ematea zabalik

Maiatzetik aurrera, 3 mailatan jokatu da: lehendabizikoa, bigarrena eta hirugarrena

Olaztiko Sutegik eta San Migel elkarrekin atzera ere San Migel Pilota Txapelketa Herrikoia antolatu dute. Txapelketa beterranoa da, pilotari afizionatuek duten kuttunetako bat, eta aurten 43. edizioa jokatu da. Txapelketa maiatzean hasiko da eta final handia, ohikoa den moduan, Olaztiko Santa Ana festetan jokatu da.

3 MAILA

Txapelketa hiru mailatan jokatu da: 1 mailan (tokeko pilotak), 2 mailan (goxua pilotak) eta 3. mailan (goxua pilotak).

IZENA EMATEKO JARRAITU BEHARREKOA

43. San Migel Binakako Txapelketan aritu nahi dutenek izena ematea zabalik dute, apirilaren 27ra arte. Bikote bakoitzak 20 euroko inskripzioa ordaindu behar du La Caixa-ko 2100536521 2100147311 kontu zenbakian eta gero ondoko telefonoetako batera deitu behar du, inskripzioa konfirmatzeko: 637 830641 (Alberto) edo 617656276 (Fermin).

Txirrindularitza**Juniorren proba Altsasun**

SOCIEDAD DEPORTIVA ALSASUAK ANTOLATUTAKO 55. ERRAMU TROFEOA JOKATUKO DA IGANDEAN, 10:30EAN

Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA) antolatuta, igandean jokatuko da juniorren mailako 55. Erramu Trofeoa. Proba beterrano hau goizeko 10:30ean abiatuko da SDA elkartearen egoitza eta 79 kilometro ondoren, toki berean despedituko da.


Altamira eta Katea

Altsasutik atera eta Zemagarako bidegurutzeraino abiatuko dira txirrindulariak, bertan buelta har-

tzeko. Segidan Etxarriraino iritsiko dira txirrindulariak, handik buelta hartu eta Olaztira bidean Altamira portua igo eta jaitsiko dute. Segidan, atzera ere Etxarriraino iritsiko dira, baina kasu honetan Lizarraga aldera joko dute, eta Lizarragako katea igo ondoren, Arbizutik jaitsi eta Altsasurako norabidea hartuko dute, atzera ere Altamira portua igotzeko. Altamira jaitsita Altsasuko helmugara abiatuko dira.

Azanza Itzulia, baina kotxean

Euskaltelen bere talde buru izandako Samuel Sanchezek (BMC) gonbidatuta, Jorge Azanza Euskal Herriko Itzulia jarraitzen izan zen, BMCko autoan. "Etapak tentsio handiarekin bizi dira autoan. Esperientzia izugarri gustatu zait eta asko disfrutatu dut. Aspaldian ikusi ez ditudan lagun asko ikusteko aukera izan du" adierazi du Azanzak facebook-en.

Motoziklismoa**Erronka: oreka guztiz berreskuratzea**

Buruan kolpe handia hartu zuen pilotuak, baina, zorionez eta mirariz, kolpeak ez dio arrastorik utzi. Sorbaldan ebakuntza egin diote, eta hankan 4 metatartso apurtuta ditu. Oraindik ez du gorputzaren oreka guztiz errekuiperatu eta hori da gehien kezkatzen duena. "Bat-bateko mugimenduak egiterakoan edo jaikitzerakoan oreka falta nabaritzen dut. Dena den, paseok ematen hasi naiz, egunero errehabilitaziora joaten naiz eta askoz hobeto nago" adierazi digu.

Mariñelarena etxean

Ostiralean ospitaleko alta jaso zuen eta etxean jarraituko du osatzen

Alex Mariñelarena pilotuak istripu larria izan zuen otsailaren 27an Paul Ricard zirkuituan, entrenatzen ari zela, eta koman egon zen 6 egunetan. Hasieran Touloneko ospitalean egon zen eta martxoaren 21ean Iruñeko Klinika Unibertsitariora ekarri zuten. Ostiralean alta eman zioten. Prozesuan 14-16 kilo galdu zituen eta orain pisua berreskuratzen ari da. "Etxean egoteak izugarri poztu nau eta egunotan hobekuntza handia nabaritu dut" esan digu.

Alexek ez du gogoratzen nola gertatu zitzaion istripua. "Kuriosoa da, baina istripua baino 2 egun lehenagotik istripua pasa eta ondoko 16-17 egunera bitarteko oroitzapenik ez dut" adierazi digu.

Irurtzundarrakez duosatzetatarik jartzen. "Lehenbailehen izatea nahiko nuke baina gutxika joan behar naiz, egunero hobetzen. Mundiala hastear zegoela hau gertatzea penagarria da eta unekonplikatuak dira, baina orain errekuiperazioan zentratzea da dagokidana" azpimarratu du 21 urteko gazteak.

Futbola

SAKANAKO FUTBOL 8 TOPAKETAK
Bukatu da, akabo!

Etzi Mank-ek antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetako 18. eta azken jardunaldia jokatu da Altsasun. 9 eta 11 urte bitarteko 121 futbolari parte hartu dute, lehiaketa baten presiorik gabe. Balorazio positiboa egin dute.

Futbola



Izena ematea zabalik

Apiribilaren 30era bitartean eman daiteke izena, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 telefonoa, kirolak@sakana-mank.com posta elektronikoa edo www.sakana-mank.com web gunea). Prezioa: 35 euro partaideko.

18. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

- 11:30ean:** Txartel Urdiain
- 11:30ean:** Arbizu K.T. - Tipi Tapa
- 12:30ean:** Kaixo - Dantzaleku
- 12:30ean:** Etxarri - Lagun Artea
- Atsedena:** Sayas

Areto futbola

Marfilen kontra irabaztera

Magnak ez zuen Bartzelonaren kontra galtzea merezi izan

Magna Nafarroa Xotak Bartzelona hartuzuen etxean, Anaitasuna ia bete zuten 3.000 zaleren aurrean. Ongi jokatu zuten Imanol Arregiren mutilek, baina punteria faltagatik ihesi joan zitzaizen garaipena. 2-5 irabazi zieten Bartzelonakoek, porrot mingarria. "Emaizta injustua da, taldeak, gutxienez, berdintzeaz merezi izanduelako. Baina galdu dugu" zioen Imanol Arregik partida bukaeran. Inter Movistar taldea da liderra (70 puntu). Magna 6. postura jaitzi da (37 puntu). Bihar 46 punturekin 4.a den Marfil Santa Colomaren kontra jokatuko du Magnak, 18:30ean. Ea Madrildik 3 puntuak ekartzen dituzten.

Udan.. futbola!

SAKANAKO MANKOMUNITATEAK UDAKO FUTBOL CAMPUSA ANTOLATU DU UZTAILERAKO UHARTE ARAKILEN. IZENA EMATEA ORAIN EGIN BEHAR DA

Mank-eko Kirol Zerbitzuak udako futbol campusa antolatu du uztaileko. Oporretan futboleant sakontzeko aukera ematen die neska-mutikoei urtero arrakastaz gauzatzeko den futbol campusak. Aurreko urtean 56 gaztek eman zuten izena.

Uharte Arakilen

Udako futbol campusa Uharte Arakilgo futbol zelaiaren eskainiko da, bi txandatan. Uztailearen 14tik 19ra 2002tik 2004ra bitartean jaiotako neska-mutillak arituko dira, eta uztailearen 21etik 26ra

1999tik 2001 urtera bitartean jaiotakoak. Talde bakoitzean gehieze ere 30 parte-hartzaile onartuko dira.

Gazteak goizeko 9:30etik 14:00etara murgilduko dira futboleant. Tituludun entrenatzaileek zuzenduko dute campusa, teknika eta praktika uztartuz. Kategoria bakoitzean dagozkion gaiak aztertuko dira, eta entrenamendua bukatzerakoan igerilekuetara joango dira. Gainera, inguruan irteerak egingo dira.

Areto futbola

Futsalsakana Kopa martxan

1. jardunaldiko emaitzak

- A multzoa: Racing San Migel 17 - Etxarriko Gaztetxie 6
Iturmendi 3 / Leones del Atlas 7
Atsedena: Arbizu gazteak
- B multzoa: Arbizu 3 - Auzomotojorik 2
Biltoki 6 - Bunker 5
Atsedena: Aralar Mendi 69

Futsalsakana Kopako lehen jardunaldia jokatu zen larunbatean Uharte Arakilen, eta bihar txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko da.

2. jardunaldia (larunbatean Uhartean)

- A multzoa: 16:00etan: Etxarriko gaztetxie - Iturmendi
17:00etan: Leones del Atlas - Arbizu gazteak
Atsedena: Racing San Migel
- B multzoa: 14:00etan: Auzomotojorik - Biltoki
15:00etan: Bunker - Aralar Mendi 69
Atsedena: Arbizu



Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

33. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 2 - BURLADES 2
Aitorrek azkar aurreratu zuen Lagun Artea, baina Burladesek berehala berdindu zuen. 2. zatian finago ibili zen Burlades, eta 88. minutuan bigarren gola sartu zuten. Deskontu garaian Urkok Lagunen berdinketaren gola sartu zuen, zapora gozoz izan zuen puntua lortuz.

Sailkapena >>

- 1. San Juan 75 p
- 15. Lagun Artea 34 p

Asteburuko jardunaldia

CARBONERO - LAGUN ARTEA
(Igandean, 17:00etan, Zintronikon)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

27. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA B 3 - UNIVERSIDAD DE NAV. O AMAYA 0 - ALTSASU 0

ETXARRI ARANATZ 1 - BETI ONAK B 1
Nahiz eta hasieran Unibertsitatekoek dominatu, Lagun Artea aurreratu zen. Bigarren zatian hobeto aritu zen Lagun Artea eta 3-0 irabazi zuen. Iruñean, husna berdindu zuten Amayak eta Altsasuk. Urduri aritu ziren Amayakoak, baina Altsasuk ez zuen egoera behar bezala aprobetxatu. Bigarren zatian bi taldeek ez zuten kontrako atean haztatu. Etxarrik eta Beti Onak B taldeak bana berdindu zuten. Lehen zatian Etxarrik dominatu zuen eta Urkiak talde etxarriarra aurreratu zuen. Baina gainontzeko aukerak ez zituzten gauzatu. Bigarren zatian gol aukera ikusgarri bat huts egin zuten, eta, tamalez, partida bukatzeko 10 minuturen faltan Beti Onak taldeak berdindu zuen, soilik arbitroak ikusi zuen falta bat jaurtiki eta gero.

Sailkapena >>

- 1. Lekunberriko Beti Kozkor 60 p
- 4. Lagun Artea B 45 p
- 8. Altsasu 38 p
- 15. Etxarri Aranatz 24 p

Asteburuko jardunaldia

BERRIOZAR - LAGUN ARTEA B
(Larunbatean, 16:00etan, Berriozarren)
ALTSASU - SAN JORGE
(Larunbatean, 11:45ean, Altsasun)
BETI KOZKOR - ETXARRI ARANATZ
(Larunbatean, 12:00etan, Lekunberri)



GARDEN
Urdiain

APIRILEKO ESKAINTZA BEREZIA

GARAICO LANDAREAK

- Geraneo eta hiedrak 1,85 €
- Surfinia "gigante" 1,95 €

BARATZEKO LANDARE ETA PRODUKTUAK

- Robin tomatea 0,35 €
- Abikompost Arakil 6,20 €

LOREDUN ARBUSTOAK

- Larrosak
- Hortensiak
- Dipladeniak
- Kalak

%30
BEHERAPENA

Goiko
LOREZAINZA

UDABERRIKO ORDUTEGIA:
Apirilaren 15etik ekainaren 1era

Astehenetik larunbatera
8:00-13:30/15:00-20:00
Igandetan eta jaiegunetan
9:30-13:30

Duatloia



Igor Flores bigarrena San Adrianen

Larunbatean X. San Adriango Hiria Duatloia jokatu zen. 101 duatletek osatu zuten proba, Iñigo Arregi (1:15:53) eta Ana Casares (1:24:58) buru zirela. Sakana Triatloi Taldeko Igor Flores urdiaindarrak bigarrena izan zen, Arregi txapeldunarengatik 11 segundo eskasera (1:16:04). Urdiaindarrak geroz eta postu hobekak lortzen ari da. Duatleta sakanadarrek primerako lana egin zuten. Francisco Javier "Pitxi" Gomez altsasuarra 6.a izan zen (1:16:55), Javier Borrega altsasuarra 9.a (1:17:54), Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 16.a (1:18:53) eta Juan Carlos Gomez 54.a (1:27:37).

Mendi lasterketak



Jose Javier Maiza 26.a Urnietan

Sakandarrak III. Urnietako mendi lasterketan

1. Jokin Lizeaga: 1:49:18
26. Jose Javier Maiza: 2:09:06
38. Ander Unzurrunzaga: 2:11:18
61. Beñat Katarain: 2:17:47
63. Mikel Berastegi: 2:17:58
187. Mikel Iriarte: 2:39:16
247. Iñaki Lacalle: 2:46:34
310. Luis Manuel Tome: 2:58:16

Igandean III. Urnietako mendi lasterketa jokatu zen (21,6 km). 417 korrikalari iritsi ziren helmugara, Jokin Lizeaga buru zela (1:49:18). Sakandarrek lan polita egin zuten eta guztietan azkarrena Jose Javier Maiza etxarriarra izan zen (2:09:06).

Saskibaloia

SAKANAKO I. SASKIBALOI TOPAKETAK

Etxarrik hartuko du 12. jardunaldia

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloia Topaketak antolatu ditu premini mailako taldeendako (8 urte-tik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak).

12. jardunaldia

Igandean, Etxarri Aranazko San Donato ikastetxean

11:00etan: Martinsasti - Putterri
12:00etan: Beriain - Balankaleku

Automobilismoa

Sakana 4x4: Josu Lizarraga bigarrena

33 todoterrenok parte hartu zuten Sakanako 4x4 Topaketan eta Josu Lizarraga bigarrena sailkatu zen

Jendetsua eta arrakastatsua izan da Sakana 4x4 Topaketa. Larunbatean eta igandean jokatu zen proba, Arbizuko industrialdean. Antolakuntzak zuloz, urez eta lohiez betetako 7 eremu prestatu zituen. Larunbatean, izena eman zuten 33 todoterrenoek norabide batean gurutzatu behar zituzten 7 eremuak, eta, igandean, kontrako norabidean.

"Eguraldi bikaina egin du eta jende asko etorri da. Bi egunak kontuan hartuz 3.000 lagunetik gora etorri dira. Gazteak, familiak... gozamina izan da" adierazi digu Sakana 4x4 taldeko Jose Luis Lakuntza "Risitas"-ek.

33 todoterreno lehiatu ziren, tartean sakandarrak. Iruñeko Txankete izan zen Sakana 4x4 Topaketako irabazlea. Bere atzetik Josu Lizarraga urdiaindarrak sailkatu zen, eta Jon Irazola baztandarra izan zen hirugarrena.



Josu Lizarraga urdiaindarrak lan bikaina egin zuen. SAKANA 4x4

Gauekoa

Larunbat gauean gaueko proba antolatu zuten. Bertan 11 ibilgailu lehiatu ziren eta Astigarrarako Iñaki Larrarte izan zen onena, Tutoren eta Etxaniz iruindarren aurretik.

25 lagun inguru aritu ziren lanean Sakanako 4x4 ibilgailuen festa dena antolatzeko. "Dorrobarrak, lakuntzarrak, arbizuarrak, urdiaindarrak, olaztiarrak eta Eskoriatzako lagunak aritzen gara lanean, gustura" adierazi digu Risitasek.

Mendia

700 mendizale baino gehiagok lotu zituzten hiru mendizerrak

Altsasuko Mendigoizaleak klubak antolatuta, Nafarroako eta Euskal Herriko mendi ibilbide luzeen zirkuiturako baliagarria den VII. Hiru Mendizerrak proba ez lehiakorra jokatu zen larunbatean.

700 mendizale pasa aritu ziren. Mendizale askok azken unean eman zuten izena, 225ek. "Ezin daiteke esan, zehazki, zenbaterik eman duten izena, 600 pasatxok. Goizean jende asko etorri da izena ematera eta horrek gainditu gaitu. 750 pertsonendako hornidura genuen eta aitari batzuk bukatu egin dira" zioten antolakuntzatik. Lehenengo mendizaleak eguerdian iritsi ziren Gure Etxeara eta, azkenak, arratsaldeko seiak aldera. Antolakuntzan 70 bat pertsona izan ziren eta ibilbidean ez zen aparteko arazorik gertatu.

Urbasa, Altzania eta Aralar batu



Urdiainera jota, Portuazpitik Urbasa-Andiara igo eta Bargainera eta Gainsolera heldu ziren mendizaleak. Hortik Ziordira jaitsi ziren. Ibilaldi motza aukeratu zutenek (26 km, 1.200 metroko desnibela), 99 mendizale, Ziordiko partzelarietatik barna Altsasura iritsi ziren. Aldiz, ibilaldi luzea egin zutenak (48 km, 2.725 metroko desnibela) Kipular igo zuten ondoren Orobeko antzinako harrobitik jaisteko. Sorozarreta jaitsi ondoren Balankaleku eta Itxuburu igo behar izan zuten. Handik Sarabetik, San Pedroitik eta Basoixetik igaro ondoren Altsasuko Gure Etxeara heldu ziren.

Herri kirolak

NAFARROAKO HERRI KIROL JOLASAK

Sakandarrak finalera

Altsasuko Nafarroako Herri Kirol Jokoen 4. jardunaldia hartu zuen. Igandean finala jokatu da Igantzian

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen 4. jardunaldia jokatu zen Altsasun. Final handia igandean jokatu da, 11:00etan, Igantzian, eta eguraldi txarra egiten badu Lesakako eskolako pilotalekuan.

Proba konbinatua

Kimuetan Andra Mari izan zen onena (6:55), Iñigo Aritz B 2.a (7:01) eta Iñigo Aritz A 3.a (7:05). 10 taldeetatik hurrengo laurak pasako

dira finalera: Iñigo Aritz B, Iñigo Aritz A, Irisarri eta Andra Mari.

Haurretan Basaburua izan zen azkarrena (8:51). Putterri 3.a izan zen (9:15), Iñigo Aritz A 4.a (9:19) eta Andra Mari 5.a (9:34). Araxes, Basaburua, Iñigo Aritz A eta Andra Mari sailkatu dira finalerako, baina azken hau ezingo denez aritu, 5.a izan den Putterrik hartuko du haren toki.

Kadeteetan Basaburua izan zen onena (10:17), Andra Mari (11:00), Berriozar (11:06) eta Ultzamaren aurretik (11:28). Igandean 5. eta azken jardunaldia jokatu du.

www.sakana4x4.com

Taldearen informazio guztia. Facebook-ean ere badaude.

Slaloma Irurtzunen

Automobilismoaren zaletuek hitzordu polita dute bihar, larunbatean, Irurtzunen. 16:00etan Irurtzango slaloma jokatu da, Akaborro industrialdean. Antolatzailuek, piboteak erabiliz, ibilbide konplikatuak markatu dituzte eta autoek, banaka-banaka, ibilbide hori osatu beharko dute. Abiadura baino gehiago, pilotuen maniobra ikusgarriak eta gidatzeko trebezia baloratzen da.

Hurrengoa

Sakana 4x4 taldeak antolatuko duen hurrengo proba ekainaren 28an jokatu da, Arbizuko San Juan festetan. Bitartean Sakana 4x4 taldekoak ingurunean antolatutako probetan lehiatuko dira. "Desiatzen gaude" gaineratu dute Sakana 4x4 taldeko kideek.

Igandean Olazti-Arantzazu

Sakanako Mendizaleak taldeak ibilbide ederra prestatu du igandera. Goizeko 7:00etan Olaztitik aterako dira eta, mendirik mendi, Arantzazura heltzeko helburua dute. Informaziorako edo izena emateko herrietako arduradunekin hitz egin behar da edo 639 11 76 31 telefonora hotsegin.

25. Sakanako Ibilaldi Handia, hilaren 26an

Irurtzango Iratxo elkarteak apiribilaren 26an antolatuko du 25. Sakanako Ibilaldi Handia. Urteurrena modu berezian ospatzeko, ibilaldia kontrako zentzuan egingo dute, hauda, Txurregi igotzen hasi beharrean, Trinitatea igotzen hasiko dira. Informazio guztia eta izena ematea: www.iratxoelkar-tea.com web gunean.

Sokatira



Haur mailan (480 kilo) Iñigo Aritz B izan zen finena (5 puntu), Putterri (3,5 p.) eta Andra Mari (3,5 p.) taldeen aurretik. Eta kadeteetan Andra Mari gailendu zen (3 puntu). Txapelketa 5 jardunaldiko ligaxkara jokatzeko ari da eta asteburuan azken jardunaldia hartuko du Igantzian.

TXANO GORRIA DUEN ROCKZALEA: Igandean, 18:00etan, Irurtzongo kultur etxean, Tdiferencia antzerki taldeak magia eta rock abentura gisa aurkezten duen Txanogorritxo rock antzezlanaren ekarriko du etzi. Txanogorritxoren betiko ipuina izan ziteke-

en baina ez da hori tularatuko dutena. Txanogorritxo rockzaleak zalapartarako gogo handia du eta ipuinari buelta emango dio. Eva Azpilikueta aktore altsasuarrekin batera, Monika Torre eta Ainhoa Ruiz ariko dira, Migel Molinaren zuzendaritzapean.

Errimarik gabeko irakaskuntzarantz?

Hezkuntza Departamentuak D ereduko ikastetxeetan ematen den Bertsolaritza irakaskuntzan programa finantzatzeari utzi dio

Ikasturte honetan Nafarroako D ereduko ikastetxe publikoetan 1.434 ikasle ari dira bertsolaritza eskola orduetan ikasten (89 Sakanan). Baina Nafarroako Bertsozale Elkarteak (NBE) lehendakari Alaitz Rekondok azaldu duenez,

Hezkuntza Departamentuak irailean jakinarazi zenez, zutela exekutatuko programarako zegoen partida, "beste lehentasun batzuk zudelako. 2014ari begira egoera moldatzen saiatuko zela agindu zigun".

Apirila da eta ez dute inolako jakinarazpenik jaso, ezta euro bakar bat ere. Lehendakariak azaldu duenez, egoera horrek Bertsolaritza irakaskuntzan programa

eta elkarte bera ere "kinka larrian" uzten du. Horregatik, Rekondok programa modu duin eta iraunkorrez finantzatu dezala eskatu dio departamenduari.

Murrizketak

2012ko garagarrilean programa bertan behera utziko zuela jakinarazi zuen Departamentuak. Jasotako babesari esker lortuzen programak



aurrera egitea. Baina programa garatzeko gero eta diru gutxiago jasotzen duela azaldu du NBEko Lorea Arburuak. 2009an 52.000 euro jaso zituzten. 2012an 32.800 euro eta aurten ezer ez. "Lau urtetan etengabeko beherakada sufritu du programak eta 2009arekin alderatuta, 765 ordu gutxiago ematen dira egun". Elkarteak bere konpromiso-

ari eusten diola adierazi du.

Sakanan 89 ikasle

Irurtzun (Atakondoa): talde bat, 19 ikasle
Etxarri (San Donato): talde bat, 17 ikasle
Iturmendi (Arrano Beltza): talde bat, 8 ikasle
Urdaian (Urdaingo eskola): talde bat, 9 ikasle
Altsasu (Zelandi): bi talde, 36 ikasle



Liburuetatik artea

Burundako ikastoletako ikasleek bi idazle altsasuarren lanetan oinarrituta artelanak sortu dituzte

Astelehenean zabaldu zituen atak *Literart, literatura eta artea* uztartuz erakusketak Iortia kultur gunean. Burundako ikastoletako

ikasleen sortze lanak ikusteko aukera dago. Ilbeltzetik apirila bitartean garatu den arte proiektuaren barruan kokatzen da erakusketa. Ikasleengan bertako idazleekiko eta euren lanekiko interesa piztu nahi izan du proiektuak. Horretarako Castillo Suarez eta

Alberto Barandiaran idazleak ikastoletan bisitan izan dira.

Txiokako 2. urteko ikasleak, Iñigo Aritzako Haur Hezkuntzako 3. eta 5. urtekoak eta Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleak Suarezen *Erikaren ttiliak*, *Musuriknahia* eta *Amelia eta Amalia* liburak abiapuntu izan dituzte. DBH 3. mailakoek, berriz, Alberto Barandiaranen *Postkronikak* liburuko erreportajeetako bat izan dute euren sormenaren abiapuntu.

bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

Etxarritik Euskal Herrira, Arbizuko bidetik

Apirilaren 13an independentziaren inguruko galdeketa egingo da Etxarri Aranatzan. Ziurrenik zuek askok gaizki ikusi dituzte "Navarra Foral y Española" k EZ bozkatzeko eskatzen jarritako kartelak, baina niretzat hori izan da albisterik pozgarriena: eztabaida handia galdu dute eta, orain,

euren proiektua defendatzea baino ez zaie geratzen.

Zorionez Etxarri Aranatzan gutxi izango dira mezu honekin bat egingo dutenak eta, espero dut, baiezkoak gehiago osoa izango duela. Espero dut, baina gustora hartuko nuke ere independentzia galdeketa batean ezezkoa, horrek erakutsiko duelako nor dagoen demokraziaren alde, nor dagoen galdetzearen alde, eta nor dagoen demokraziaren aurka, nor

dagoen inposaketarekin jarraitzearen alde bozka ez dadin.

Ekainaren 8an metro bat dut gordeta Arbizun, *Gure Esku Dagok* egingo duen giza-kate erraldoian. Agian gehiegi emozionatu nintzen ekimena aurkeztu zenean eta han hartu nuen, kontuan izan gabe nirekin joango direnek zer egingo duten. Baina *Gure Esku Dagok* antolatutako giza-kateak, irailan Eskozian eta azaroan Katalunian izango diren galdeketeak argi era-

kusten dute hurrengo urtetan erabakitze eskubidearen inguruan asko hitz egingo dela, hemen eta Europan. Hor ere, Europako Parlamentuan, jokoan dago demokrazia eta inposaketaren arteko eztabaidaren emaitza.

Durangotik Iruñeara joango den giza-katean Arbizun izango naiz, esan bezala. Etxarri Aranatzan egingo den demokrazia ariketa honen hurrengo geltokiren batean ere parte-hartzea gustatuko

litzaidake, herri gehiagotan horrelakoak antolatzea. Irakurri dudanez hala izango da. Herri bat ez dagoelako gelditzerik. Gehienez ere Nafarroaren foraltasun eta espainiartasuna aldarrikatzea tokatzen zaie, orain, demokraziaren aurkakoei. Independentzia nahi dugunok gure helburua lortzea ere, *gure esku dago*.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

OSTIRALEAN:
asteburuko agenda,
asteko errepaso

IGANDEAN, SAIO BEREZIA
Etxarriko herri galdeketa

10:00-13:30 / 20:30-21:30

Esataria: *Eneida*





Nonerabili

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan, diruz ordainduz gero.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

MARIA LUISA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10 €ko deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

%5eko irakurketako liburuetan.

MENDILORE

BAKAIKU

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, % 5ko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

www.guaixe.net-en
zerrenda osoa ikusgai



Etxarri Aranaztik Torrelavegako erlijio musika ziklora

Etxarriko abesbatzak, bihar, 20:30ean kantatuko du Asunción elizan

Pasa den asteburuan jarri zen martxan XIV. Torrelavegako (Kantabria) erlijio-musika zikloa. Solvay Ensemble Ganbera abesbatza eta Valladolideko Unibertsitateko abesbatzen emanaldien ondoren gaur herriko abesbatzak kantatuko du eta zikloa itxeko Etxarri Aranazko abesbatza izanen da kantuan.



Errepertorio zabala

Emanaldirako Europa iparralde eta ekialdeko eliza-musikan oinarritzen den errepertorioa prestatu dute. XIX. eta XX. mendeetako obrek osatzen dute abesbatzaren programa. Europako ipar-ekialdera bidaiari musikasakroa izanen da nagusi, baina herrialde bateko eta beste folk ukituak ere izanen dira. Musika bidaiari pasako dituzten herriak eta zuzendariak honakoak dira: Suediako Otton Olson, Norvegiako Edvard Grieg eta Trond Kverno, Errusiako Sergéi Rajmáninov, Hungriako György Deák-Bárdos eta Lajos Bárdos anaiak, Lituaniako Vytautas Miskinis, Poloniako Henryk Mikolaj Górecki eta Txekiar Errepublikako Zdenek Lukás.

Bengoetxearendako aipamena Altsasun

Igandean jokatu zen XIII. aurreku eta soinu zahar txapelketan Xabier Bengoetxea ziordiarrek epaimahaiaren aipamena eskuratu zuen. Izan ere, mutikoen txapelketa maila bakarrean jokatu da 7 eta 15 urte bitartekoak elkartzuz. Ziordiarrek bere dantzarako trebezia erakutsi zuen eta igandean bigarren izan zen Altsasun. Gaztetxo-

en artean ongien sailkatuzena izan zen eta bere ahalegina aitortu zion epaimahaiak. Aurretik eta atzetik Aimar Odriozola (Ibarra) eta Eneko Gonzalez (Elgoibar) izan zituen. Bengoetxea finalean ariko da.

Nesken 12 eta 13 urtekoen mailan Nora Fraile (Lezo) izan zen lehena. Podiuma Nerea Sasiainek (Elgoibar) eta Maddi Bengoetxeak (Lizar-



tza) osatu zuten. Amets Maiza eta Izaro Agirre altsasuarren kasuan, Agirre 6.a izan zen eta Maiza 12.a. Inoiz baino garestiago zegoen fina-

lerako sailkatzea, dozena erdi postu zeudelako. Bi altsasuarrek ezin izan dute sartu. 7-11 urte bitartekoetan Naroa Otxoak sailkatu zen.

Zinema antzerkian

Oscar Terol eta Asier Hormaza aktoreen azken lana gaur, 21:30ean Irurtzun kultur etxean

Film baten grabazioak herri txiki batean sortzen duen egoera kontatzen du *Figurantes* antzezlanak. Ados Teatroren obrak herri txiki horretan filmaketak sortuko dituen egoera zoro eta barre-garri mordoa erakutsiko ditu. Film horretan aktore figurante lana egiten duten gizon biren papeira antzezten dute Hormazak eta Terolek.

“Ospearen izenean arima deabruari saltzeko prest dauden” gizon bi dira, eta askotan bizirauteko premia duintasunaren gainetik nola jartzen den erakusten du obrak. Sasi aktore hauek antzeztuko dituzten pertsonaia andanak, zinearen negozioa baino bizitzaren negozioa erakutsiko digu eta, batez ere, bizirauteko premia duintasunari eta ametsi gailentzen zaiela ikusiko dugu.



Antzerkia antzerkiaren barruan

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean

Incierto Troupe-Kromlech konpainiak Kenneth Branaghen *En lo más crudo del crudo invierno* (1995) komedia ingelesa moldatuta ekarri du gaur Olatzagutira. Ingalaterrako landa eremuko herri galdu batean utzitako eliza batean zuzendari gogotsu batek Hamlet antzeztu nahi du. Horretarako bere gogo berak dituzten aktoreen premia du. Baina castinga tamalgarría izanen da, entseguak penagarriak, elkarbizitza zaila eta egunak aurrera egin ahal mustutze data gero eta gertuago dute.

Komediak antzerkiaren eta bere makineriaren ezkutuko kontuak azaleratzen ditu: nola sortzen den konpainia, entseguak nola diren, obra gauzatzen den bitartean nolakoa den elkarbizitza, eszenografiaren diseinua... Hori guztia barre, xamurtasun, malko eta bestelakoen artean. Antzezlanaren mustutzea lortuko duten jakin nahi duenak gaur Olatzagutiko kultur etxetik pasa beharko du.

Fitxa

Aktoreak: Blanki Castillo, Cristina Nagore, Edurne Salaberri, Javier Briansó, Josu Castillo, Joxepe Gil, Txiki Medina eta Ventura Ruiz. **Egokitzapena eta zuzendaritza:** Ana Maestrojuán.

Flamenco berritua



Fitxa

Zuzendaritza, koreografia eta dantza: Daniel Doña. **Gonbidatutako artistak:** Cristian Martín (dantza). Jose Luis López (txeloa)

Bihar, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean itzal handiko hainbat konpainiatan bakarlari aritutako dantzaria

Daniel Doñaren dantza konpainiaren *A pie* ikuskizunera joaten direnek dantza espainiarrarekin, flamenko berritzailearen eta dantza garaikidearen arteko nahasketarekin gozatzeko aukera izanen dute. Doñak berak adierazi duenez, bere bizitzak, garapenak, baita sorkun-

tzak ere, mantso egiten dute aurrera, oinez, *A pie*. Eta bihar Altsasun ikusiko den dantza saioa horrela sortu zela esan du.

Hiru bloke

Doñak aurkeztuko duen emanaldiak hiru zati ditu. Aurrenekoan estetika garaikideagoa du eta biolontxeloaren bidez dantza eta musikaren arteko lotura egiten saiatzen da. Enrique Morentek kantatutako tonák eta erromantzeak ditu. Segituan, dantza espainiarraren txanda etorriko da, tango eta malagueña koreografie bide emanen diena. Azken zatian, dantza “tradizionalagoa” izanen da, “aurreko guztiaren jatorria baita”.
[+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

Fisioterapia

Sendo

Javier Beloki
Fisioterapeuta - Osteopata

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Estructurala · Biszerala
- Minen errehabilitazioa

655 708 916
Burundabidea 3-1B · Etxarri Aranatz
sendofisioterapia@gmail.com

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 70%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 13%	euria: 25%	euria: 22%	euria: 22%	
Min: 9 Max: 15	Min: 7 Max: 15	Min: 6 Max: 16	Min: 7 Max: 19	Min: 9 Max: 17	Min: 8 Max: 15	Min: 7 Max: 12	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	26	2.8	6.2
Altsasu	24	6	5.5
Aralar	17.7	1.1	7.9
Urbasa	21	3	4.6

: ilargiaren aldia>>

	ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
	15	22	29	7

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Apiribileko bazkide zozketa

LACTURALE

AQUARIUM

DOCTOR DESEO

APIRIBILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
2. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
3. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
4. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera

>> 11

galdera

Jesus Tobar

Marrazkilaria

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

UDAL BULETINAK Herritarrengandik hurbil

uharte arakil

Zorionak Lizerrengoi

Nola hobetu?

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net

- 1. Marrazkiak egiten dituzu.** Betidanik marraztu dut, ume nintzenetik. Denetarik egin dut, oleo-pinturarekin margotu dut, akua-relekin, eta abar; bainarotringa aurkitu nuen eta horrekin aritzen naiz gehien bat. Marrazkiak txuri beltzean gustatzen zaizkit eta rotringarekin oso ongi gelditzen dira.
- 2. Zer da rotringa?** Rotringa estilografo bat da, boli antzeko bat. Punta ezberdinekoak daude, baina nik txikienarekin lan egiten dut, 0,2 milimetrokoa. Rotring marka alemaniarra da eta perituek eta ingeniariak erabiltzen dute planoak eta beste egiteko. Tinta oso ona da oso azkar lehortzen da. Kontu handiarekin ibili behar zara apurtzen bada hutsetik hasi behar duzulako lana. Kartutxoak Internet bidez erosi behar dira eta nahiko garestia da. Marrazki bat egiteko bi kartutxo inguru erabiltzen ditut.
- 3. Nola ezagutu zenuen?** Bic beltzarekin margotzen nuen. Baina konturatu nintzen ez zuela dena betetzen. Egun batean rotring bat topatu nuen lanean eta marrazkiak egiten hasi nintzen. Emaitza gustatu zitzaidan.
- 4. Zer marrazten duzu?** Etxeak marraztea gustatzen zait. Gehienbat Altsasukoak. 1990ean etxeak egiten hasi nintzen eta jendeak haien etxeak marrazteko eskatzen zidan. Argazkiak ateratzen nituen eta hortik egiten nituen marrazkiak. Baselizak ere marrazten ditut; Altsasuko inauterien marrazkiak egin ditut ere, baina gehienbat etxeak. Rotringarekin oso zaila da kurbak egitea eta aurpegiak egitea oso zaila da.

- 5. Zergatik etxeak?** Detaileak gustatzen zaizkit. Adibidez Beriaingo marrazkiko belarra nire sinadura mila aldiz jarrita da, San Pedroko baselizaren inskripzio osoa jarri nuen lupa batekin irakurri daitekeena, edo Arantzazuko 1614 harriak jarri nituen. Zentimetro zentimetro eta pazientziarekin egiten dut lan, denbora librean.
- 6. Zenbat denbora behar duzu marrazki bat egiteko?** Pixkanaka egiten dut. Bi hilabete inguru, marrazkiaren arabera. Onddoen marrazkia 20 ordutan egin nuen.
- 7. Marrazteko ikastaroren bategin duzu?** Ez. Nire barnean dagoen zerbait da, ume nintzenetik. Galdetzen badidate ea nola hartzen ditudan neurriak, neurtzen dudana argazkian zentimetro bat dena, marrazkian hiru dira; hiruko erregela araua erabiltzen dut. Ez dut beste modu batez agutzen. Behin erakusketan batean galdetu zidaten ea zer zen cavalierballero perspektiba eta nik ez nekien. Azaldu zidaten lerro guztiak luzatuz gero puntu bakar batean elkartzeko direla. Hori izan da ikasi nuen arau bakarra, hamar minututan esandakoa.
- 8. Erakusketak egin dituzu, beraz. 1990ko hamarkadan bi erakusketak egin nituen. Bat Euskadiko Kutxan, nire lanekin bakarrik, eta beste bat Dora Salazarrekin eta Txuspo Poyorekin. Begira non dauden hauek ... Gero Egin egunkaria itxi zutenean, dirua lortzeko nire marrazkiak erakutsi nituen, eta kartel, pegatina eta elastiko asko egin ditut ere. Lehen**

kultur mugimendu guztietan nongoen, baina gero lanean hasi nintzen eta 15 urtez ez dut ezer egin. Orain blogarekin hasi naizenez, marrazkiak behar nituen eta hasi naiz berriz ere. Eskaeren bidez lan egiten nuenez, marrazki asko jabeak dituzte.

- 9. Zapardi.wordpress.com bloga sortu duzu. Zergatik?** Langabezian nago. Enpresetarako blogak sortzeko ikastaroa egin nuen. Ikastaro honetan bloga sortzeko gai bat bilatu behar genuela esan ziguten eta nik nire lanei buruz egitea pentsatu nuen. Zapardi deitzea erabaki nuen jendeak ni nintzela ezjakiteko. Urriaren 30ean hasi nintzen eta aurreko egunean 2.500 bisita gaintu nituen. Ez nuen espero hainbeste jarraitzaile izatea. Orain helburua bloga eguneratzea eta berarekin jarraitzea da.
- 10. Blogaren bidez marrazkiak egiteko eskaeraren bat jaso duzu?** Eskerrak eman dizkirate eta gustatzen zaiela esan didate, baina ez didate eskaerarik egin. Estatu Batuetatik, Chiletik edo Alemaniatik jarraitzen naute. Marrazkiak erabili ahal dituzten eskatzen didate askok eta eskertzen dut hori.
- 11. Blogean bideoak ere badaude.** Bi bideo egin ditut. Ikastaroan Picasarekin hasi nintzen marrazkiak eskaneatzen eta konturatu nintzen bideo botoi bat zegoela, eman nion eta musika jarri nuen eta bideo bat sortu nuen. Beste bi bideo ditut blogean: 1976ko Santa Agedakoa, Salegirena, eta Mikel Nazabalen beste bat. Bloga Altsasuri eta Sakanari begira bideratu nahi dut.